

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZAREN LEGE- AURREPROIEKTUAREN MEMORIA LABURRA GOBERNU-KONTSEILURAKO

(DNCG_LEY_54759/21_07).

XEDEA ETA HELBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkurak, 2023ko martxoaren 30eko bilkuran, **56/2023 irizpena** eman du, Euskal Herriko Hezkuntzaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa (Erref.: : DNCG_LEY_54759/21_07).

Era berean, 2023ko martxoaren 30ean **4/23 irizpena** eman zuen **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak** Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Legearen Aurreproiektuari buruz.

Alde batetik, memoria hau izapidetze-faseetan emandako memorien osagarria da, eta, bestetik, azken irizpen horietan emandako gogoetak kontuan hartuta, memoria honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Lege-aurreproiektua egiteko prozesuaren berri ematea da. Helburua da aurreproiektua artikulatzeko modua azaltzea, eta ikuspegi orokorra ematea egindako izapideei buruz, kontsultetan eta txostenetan eginiko oharrei buruz eta ohar horiek kontuan hartzeko arrazoiei buruz, horren emaitza izango den testua errazago ulertzeko, gero testu hori Gobernu Kontseiluari bidaliko baitzaio hark eztabaidatu eta onartu dezan, memoria honekin batera.

AURREKARIAK

Gobernu Kontseiluaren 2020ko azaroaren 10eko erabakiaren bidez, **XII. Legegintzaldiko Legegintzako Programa** onetsi zen. Programa hori plangintza-printzipioa Gobernuaren esku-hartze legegilearen esparruan praktikan jartzen duen tresna bat da; izan ere, helburuak ezartzea, lehentasunak zehaztea eta arauak sortzeko bitartekoak zehaztea dakar.

Legegintza-programa horretan, zehaztutako 45 lege-proiektuen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Lege bat garatzeko konpromisoa dago, eta EAEn hezkuntza-sistema bateratua eraikitzen lagunduko duen esparrua ezartzen da, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatuko dituen kalitate-, ekitate- eta eraginkortasun-printzipioetan oinarrituta.

Gainera, lege horrek Euskal Hezkuntza Sistemaren kalitatean aurrera egiten eta sakontzen lagundu behar du, gizartearen beharizan pertsonal, sozial, akademiko eta laboralen eta egungo eta etorkizuneko testuinguruaren arabera, eta, aldi berean, Europako hezkuntza-esparruan txertatu behar da.

Gernikako Estatutuan onartutako hezkuntza-eskumenen garapen-mailarik altuenera iristea eragin behar du legeak, eta Euskal Hezkuntza Sistema indartzea eta egonkortzea ahalbidetu behar du.

Era berean, gure hezkuntza-sistemaren berezitasunei erantzungo dien lege bat ezartzea da helburua, haren beharrei modu egonkor eta iraunkor batean erantzuteko beharrezkoak diren tresnekin, sistema hobetzeko elementu berritzaileak bilduko dituen: autonomia, eleaniztasuna, prestakuntza, teknologia berriak, sareak, materialak, hezkuntza-antolaketa, etab. eta bizitzan zehar etengabe ikasteko oinarriak ezarriko dituen eta Jakintzaren Gizartea garatzen aktiboki lagunduko duena.

Irizpide eta helburu horiek aintzat hartuta, Hezkuntza Saila Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Legearen proposamen bat prestatzen ari da, legegintzaldi honetan onets dadin, **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sistema modu progresiboan eraldatzeko oinarriak arautuz, euskal gizartearen eskakizunetara egokitu ahal izateko.**

Ildo horretatik, Hezkuntza Sailak 2020-2021 ikasturtean (baita 2022-2023 ikasturtearen zati batean ere) entzute aktiboko prozesu bat eraman du aurrera, hezkuntza-eragile guztien ikuspegi, kezka eta ekarpen guztiak biltzeko asmoz. Helburua izan da, alde batetik, lege-aurreproiektu honetan landu nahi ditugun ardatzak aurkeztea, eta, bestetik, auziak ukitzen dituen eragileekiko lankidetzara areagotzea, ikuspegi, kezka eta ekarpenen entzute aktiboaren bidez. Bileretan 1.500 pertsona inguruk hartu dute parte aktiboki, horien artean familien elkarteak, ikastetxeetako zuzendaritzak, patronalak, sindikatuak edo hezkuntzaren eremuarekin lotura duten bestelako erakundeak.

Ildo beretik, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2021eko urriaren 14an egindako bileran, 28/2021 Mozioa onartu zuen, honako testu honekin:

*“Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Batzordearen esparruan **ponentzia bat** eratzea erabaki du, etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko hezkuntza-hitzarmen zabal bat lortzeko oinarriak zehaztu ahal izateko. Bertan, agerraldi publikoen bidez parte hartu ahal izango dute, besteak beste, adituek, gizarte-eragileek eta administrazioetako arduradunek. Halaber, ondorioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidaliko zaizkio, Euskadiko*

etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarri izan daitezen”.

Ponentzia horren lanak bukatu ondoren (100 parte-hartzaile, guztira), Eusko Legebiltzarrak, 2022ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran, gehiengo zabal batez erabaki zuen “EUSKAL HEZKUNTZAREN ERALDAKETARAKO OINARRIEN AKORDIOA” txostena onestea. Akordio horren bidez, Euskal Hezkuntza Sistemaren etorkizunari buruzko akordioaren oinarriak zehaztu ziren. Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera igorri da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Lege-aurreproiektuaren oinarria izan dadin.

Dokumentua joan den 2022ko apirilaren 19an argitaratu zen Aldizkari Ofizialean eta, Legebiltzarraren agindua aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Lege-aurreproiektua idazteko oinarria izango da.

Dokumentua txosten honetan jaso da, eta eskura dago honako esteka honetan:

https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/88270b87-659c-4ae1-83c1-b8008c61e2f9

Esparru horren barruan, eta hartutako konpromisoarekin aurrera egiteko, 2022ko ekainaren 20an Hezkuntzako sailburuak azalpena eman zuen Legebiltzarrean, eta, bertan, aurreproiektuari lotutako akordioaren esparru desberdinak garatzeko beharrezkoak diren 43 jarduketa jasotzen dituen egutegi bat zehaztu zen.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Hezkuntza-legeek denboran irauteko bokazioa izan behar dute. Hezkuntza esparru sozial eta ekonomiko sentikorra izanik, ez da zilegi arau-esparrua behin eta berriro aldatzen ibiltzea. Hortaz, aurrean ziurgabetasunez betetako etorkizuna dugula kontuan hartuta, euskal hezkuntza-sistemaren araudia balioetan (oinarri sendoa), printzipio irmoetan eta gutxieneko arauetan oinarrituko da. Arau horiek erregelamendua egiteko ahalaren bidez egikarrituko dira; lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzaren esku egongo da, eta zenbait kasutan, halaber, sailaren aginduei egoerari erantzuteko behin-behinean aitortutako arautze-ahala erabiliko da, beren izaera bereziagatik erantzun bizkorrak edo azkarrak behar dituzten gaietan. Arau-malgutasunak, beraz, esparru arautzaile baten berezko ezaugarrietako bat izan behar du, abiada biziko eta izaera oso disruptiboko testuinguru batean, horretan murgilduta egongo baikara datozen urte eta hamarkadetan.



Gainera, hezkuntzaren araudiak hezkuntzaren eremuan metodoen, antolakuntzaren edo kudeaketaren berrikuntza gauzatzeko bidea eman behar du. Eta, horretarako, hoberena da etorkizuneko Legetik abiatuta arau-esparru arin bat ahalbidetzea, hezkuntzaren leihoak zabaltzeko demokrazia aurreratuenetako arlo publikoko maila desberdinetan antolamendu, kudeaketa edo langileen esparruan planteatzen diren aurrerapen esanguratsuenei. Hezkuntzaren garapen eraginkorra lortzea da helburua, kalitateari, bikaintasunari, berdintasunari eta inklusioari dagokienez, betiere onartuz ezarpena progresiboa izango dela.

Lege-proiektu honetara iristeko lehenengo anbizioa izan da hezkuntza-sistemari egonkortasuna emango dion lege bat babesteko akordio zabalak lortzea. Bigarrenik, garatu den **erregulazioan garrantzi handiagoa ematen zaie eraldaketa-prozesua gidatu behar duten printzipio-lerroei arau zehatzak ezartze hutsari baino**, izan ere, horiek lotu eta baldintzatuko ditu politikaren arabera aldakorra izan daitekeen oinarritzko erregelamendugarapenak, eta gorabehera horiek eragina dute autonomia-mailako legean, eta neurri batean zentzurik gabe utz dezakete, oinarritzko legegileak atzetik egindako esku-hartzeen ondorioz, legeak etengabe birformulatuz eta, askotan, arautzearen inguruan aurretik hartutako erabakien irakurketa murriztaileagoa eginez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen Aurreproiektuak, aurreko 1/1993 Legeak ez bezala, hezkuntza publikoa eta, zehazki, titulartasun publikoko ikastetxeak arautzeaz gain, ikuspegi holistikoagoa hartzen du, euskal hezkuntza-sistemaren erregulazio integral baten bidez; horrek esan nahi du diru-funts publikoen bidez finantzatzen diren ikastetxe guztietara heda daitezkeela Legearen printzipio asko eta arauen zati bat eta ikastetxe pribatuen aipamen puntualak ere egiten direla. Lege honek, hala ere, ez du ahazten euskal hezkuntza-sisteman euskal eskola publikoari dagokion protagonismoa, ikasleen sarbide unibertsala bermatzen duen oinarritzko erreferentea baita, finantzaketa egokiaz hornituta, eta aurrera egingo du, Lege honetan ezarritakoaren arabera, itunpeko irakaskuntzarekin elkar-bizitzan. Itunpeko irakaskuntzak, funts publikoez elikatzen dela kontuan hartuta, bere ikastetxeak titulartasun publikokoak ez badira ere, legeak ezarritako printzipioak eta helburuak bete behar ditu, baita legeak ezartzen dizkion konpromisoak ere.

Zioen azalpenean, 5 atal jaso dira. Lehenengoa hezkuntzaren inguruko anbizio kolektiboari buruzkoa da, kohesio soziala, berdintasuna eta garapen ekonomiko harmonikoa ahalbidetzeko baliabide garrantzitsuena baita. Testuinguru-erreferente orokor zenbait aipatzen dira bertan, hala nola ziurgabetasuna, klimak, migrazioak eta teknologiak aurrean jartzen dizkiguten erronkak, eta populazioaren zahartzea. Hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak eta ikasle eta irakasleen protagonismoa aipatzen dira.



Bigarren atala lege berri bat egitearen arrazoiari buruzkoa da, eta azpimarratzen da euskalduntzea eta inklusio-politikak instituzioek eta gizarte eragileek batera gauzatutako ekimenak eta euskal hezkuntza-sistemaren lorpena izan direla. Izan ere, bizi ditugun aldaketa sakonei erantzuteko malgutasunetik eta egokitzapen progresibotik emandako diagnostikoak eta erantzunak behar dira. Halaber, euskal hezkuntza-sistemaren arautze integrala behar dela jasotzen du.

Hirugarren atala hezkuntza-sistemaren balioei buruzkoa da, eta hiru ardatzen inguruan egituratuta dago: izatea, jakitea eta elkar-bizitzea.

Laugarren atalean aipatzen dira hezkuntza eleaniztuna eta kulturartekoa, hizkuntza desberdinen arteko harremana eta interakzioa, prestakuntza eta ikerketa euskararen irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruz, eta euskararen erabilera aktiboaren erantzunkidetasuna, testuinguru formalean eta ez-formalean. Mundu anitz eta global baterako prestakuntza eta ikastetxeen nazioartekotzea indartu beharra ere aipatzen dira.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak ia 30 urtez iraun du, eta gure hezkuntza-sistemaren oinarritzko erreferentea izan da. Egungo proposamena erronka bat da, eta aldi berean aukera bat da, euskal hezkuntza-sistemari sendotasun handiagoa emateko, Euskal Hezkuntza Sistemari egin beharreko aldaketei heltzeko bidean.

Lege-aurreproiektuaren eskema:

- I. titulua. XEDAPEN OROKORRAK

I. kapitulua: Legearen xedea

II. kapitulua: Euskal hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak

III. kapitulua: Euskal hezkuntza-sistemaren balioak

IV. kapitulua: Irakaskuntzen antolaketa

V. kapitulua: Ikastetxeen tipologia

- II. titulua. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA ETA BIZIKIDETZA POSITIBOA

I. kapitulua: Hezkuntzarako eskubidea

II. kapitulua: Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa ematen duten ikastetxeen eskaintzaren eta sarbidearen programazioa

III. kapitulua: Bizikidetza positiboa

- III. titulua. HEZKUNTZA-SISTEMAREN GOBERNANTZA

I. kapitulua: Gobernantza, plangintza eta programa-kontratua.

II. kapitulua: Ikastetxeen gobernu eta zuzendaritza profesionala. Ikastetxeetako zuzendaritzen lidergo pedagogikoa.

III. kapitulua: Eskola-kontseiluak eta euskal hezkuntza-sisteman parte hartzea.

IV. kapitulua: Hezkuntza-komunitatea.

- IV. titulua. HIZKUNTZAK EUSKAL HEZKUNTZAN

I. kapitulua: Euskal hezkuntza-sistemaren esparru eleanitza eta kulturartekoa.

II. kapitulua: Hizkuntza-proiektuak euskal hezkuntza-sisteman.

III. kapitulua: Irakasleak eta pertsonal ez-irakasleak.

IV. kapitulua: Euskararen giro-erabilera.

- V. titulua BERRIKUNTZA, EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEEKUNTZA

I. kapitulua: Hezkuntza-berrikuntza eta prospektiba.

II. kapitulua: Euskal hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta hobekuntza.

III. kapitulua: Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutua.

IV. kapitulua: Hezkuntza-sistemaren ikuskapena.

V. kapitulua: Hezkuntzari laguntzeko zerbitzuak.

VI. kapitulua: Euskara eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua.

VII. kapitulua: Elkarlaneko prestakuntza berri baterantz. Irakasleen hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza. Laguntzako langileak.

- VI. titulua. IKASTETXEEN AUTONOMIA

I. kapitulua: Xedapen orokorrak.

II. kapitulua: Hezkuntza-proiektua.

III. kapitulua: Ikastetxeen autonomia.

-XEDAPEN GEHIGARRIAK

-XEDAPEN IRAGANKORRAK

-XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

-AZKEN XEDAPENAK



TRAMITAZIOA ETA PRESTATZEKO PROZEDURA

Euskadiko Hezkuntza Legearen Aurreproiektuak nahitaezko izapide hauek bete ditu: **aldez aurretiko kontsulta, entzunaldia, informazio publikoa eta beste administrazio batzuen kontsulta**, hartara bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin.

Testu arauemailearen zirriborroa egin aurretik, honako gai hauen inguruko informazioa eskaini zitzaien herritarrei: a) ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoak; b) legea onesteko beharra eta egokitasuna; c) arauaren helburuak, eta d) arauzko eta arauz kanpoko bestelako konponbide posibleak; horrenbestez, gai horien inguruko iritzia emateko gonbita egin zitzaien, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 133. artikuluan zehazten duen **aldez aurretiko kontsultaren** bitartez. Kontsulta hori 2021eko irailaren 17an hasi zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoen Iragarki Taulan iragarki bat jarriz eman zen jakitera.

Era berean, aurreikusitako araudiaren zuzeneko eraginpean gera daitezkeen beste administrazio batzuei ere eman zaie parte hartzeko aukera. Horrela, EUDELen bitartez Euskadiko udal guztiei egin zaie abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako beste administrazio batzuek **parte hartzeko eta horiei kontsulta egiteko** izapidea.

Erregulazioak haien eskumen-eremuan duen eragina kontuan hartuta, ekimen arauemailea Hezkuntza Sailaren eskura jarri zen, izaera orokorreko xedapenen izapidetze telematikorako Tramitagune izeneko erremintaren bitartez, hura aztertu eta, hala badagokio, ekarpenak egiteko.

INPAKTU-TXOSTENAK ETA ALDEZ AURREKO ONESPENAREN AGINDUA

2022ko uztailaren 22an arauaren testuaren aldez aurretiko onestena emateko agindua eman zen, eta espedienteari aurretiazko txosten hauek gehitu zitzaizkion:

- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena

- Enpresan duen inpaktuari buruzko txostena
- Administrazio-kargei buruzko txostena
- Haurrengan, nerabeengan eta familiengan duen eraginari buruzko txostena
- Gazteengan duen inpaktuari buruzko txostena
- Aurretiazko kontsultako ekarpenen analisiaren txostena
- Memoria ekonomikoa

2022ko uztailaren 21ean, **generoaren araberako eraginari buruzko txostena** egin eta espedienteari erantsi zitzaion, 4/2005 Legearen 19.1 artikuluan eta 40/2012 Ebazpenaren Lehenengo Gidalerroaren 3. epigrafean ezarritakoaren arabera: “(...) araua edo administrazio-ekintza sustatu duen organoa da generoaren araberako eraginaren txostena egiteko administrazio-organo eskuduna, tramitazio-unitatearen bidez”.

2022ko uztailaren 21ean, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen aurreproiektuari dagokion **enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena** egin eta espedienteari erantsi zitzaion. Hori guztia, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko: Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arautze edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak, bere zerbitzu juridikoen bidez, ebaluazio-txostena egingo du, enpresak sortzearen, abiaraztearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz.

2022ko uztailaren 21ean **administrazio-kargei buruzko txostena** sortu eta erantsi zen.

2022ko uztailaren 21ean, **haurrengan, nerabeengan eta familian izango duen eraginari buruzko ebaluazio-txostena** egin eta espedienteari erantsi zitzaion. Eta hori guztia Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea betetzeko, zeinak Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari 22. artikulua gehitzen baitio, eduki honekin: “Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera, araudi-inpaktuaren analisiari buruz aurkeztu beharreko memoriek araudiak haur eta nerabeengan duen inpaktua jaso behar dute”. Gainera, hamargarren xedapen gehigarria gehitzen dio Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeari, “Arauek familian duten eragina”, honako hau ezarriz: “Lege-aurreproiektuekin eta araudi-proiektuekin batera araudi-eraginaren analisiari buruz aurkeztu beharreko memoriek araudiak familian duen eragina jasoko dute”.

2022ko uztailaren 21ean, **gazteengan duen inpaktuari** buruzko ebaluazio-txostena egin eta espedienteari erantsi zitzaion. Hori, Gazteriari buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 18.1 artikulua betetzeko xedez, haren arabera, Eusko Jaurlaritzaren lege-aurreproiektuekin, erregelamendu-proiektuekin eta planekin batera aurkeztu behar diren memorietan, araudiak edo planak gazteengan zer-nolako eragina izango duen adierazi behar baita.

2022ko uztailaren 22an **hasierako memoria ekonomikoa** sortu eta atxiki zen.

2022ko irailaren 15ean, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak Euskadiko Hezkuntza Legearen aurreproiektuari buruzko txostena argitaratu zuen Tramitagunen.

Txosten hori aintzat hartuta, dagozkion aldaketak egin zitzaizkion Lege-aurreproiektuaren testuari.

2022ko irailaren 2an, **jendaurreko informazioaren tramitea egin zen**, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 8/2003 Legearen 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hain zuzen, artikulua horrek honako hau dio: "Herritarren eskubideei eta bidezko intereseei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaera dela-eta komenigarri bada, jendaurrean jartzeko izapidea bete behar dute." Aginduan xedatutakoa betetz, entzunaldia eman zaie arauak uki ditzakeen sektoreei, eta horretarako, aurreproiektua bidali zaie EAEko hezkuntzaren arloko elkarte, sindikatu, patronal eta eragile esanguratsuenei. Bestalde, jendaurreko informazioaren izapidea EAEko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko Iragarki Taulan eta Hezkuntza Sailaren web orrian iragarki bat jarritz bete zen, eta 2022ko irailaren 15ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratu zen. Prozedurak ezarritakoaren arabera, aurreproiektuaren alde aurreko onespeneren iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasten da 20 egun baliouduneko epea, egoki iritzitako alegazioak eta ekarpenak aurkezteko, jendaurreko informazioaren izapidearen bidez.

Jendaurrean jartzeko izapide horien ondorioz, honako interesdun hauek, hobekuntza-proposamenak, oharrak eta alegazioak eginez, bidalitako idazkiak jaso dira:

1. ASOCIACION EUROPEISTA CIUDADANA
2. LAB
3. BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGOA
4. AICE-ICEA
5. CONFEBASK



6. HEZKUNTZA LIBREZALE
7. FEVAS (Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa)
8. EUSKAL GORRAK
9. ELA
10. BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONA ETA SENIDEEN ELKARTEEN EUSKADIKO FEDERAZIOA (FEDEAFES)
11. ADARRA PEDAGOGI ELKARTEA
12. EHIGE
13. ELIZBARRUTIA (EBI)
14. EUSKO IKASTOLA BATZA (EIB)
15. EAEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN ELKARTEA
16. ARNAS DEZAGUN GURASO TALDEA
17. IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAK (FAPAE, FAPACNE, BIDELAGUN)
18. EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA
19. STEE-EILAS
20. KRISTAU ESKOLA
21. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
22. EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA
23. EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA (EHM)
24. GIARBI, HAURPRIBI
25. EGINAREN EGINEZ
26. ERELGUNE FOROA
27. ALDAIABERRI GURASO ELKARTEA FOROA
28. DANIELA VELASCO RUSSO
29. JOSU AZARLOZA
30. RICARDO ARANA
31. EIDER BERAZADI ARAMENDI
32. JOSE IGNACIO EGUIZABAL
33. JOSEBA PAUL OLABARRIETA
34. MIKEL DIEZ SARASOLA (EHUKO POLITIKA-ZIENTZIAK ETA SOZIOLOGIAKO 1. MAILAKO TALDEA)

Derrigorrezko txostenen irizpenak jaso eta aztertu dira (ikus “Euskadiko Hezkuntza Legearen aurreproiektuaren ekarpenen memoria”):

2022ko urriaren 6an Herri Administrazioetan **Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren** txostena (Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila) jaso zen, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuko 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, han baitago jasota xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea.

2022ko irailaren 26an jaso zen **Lehiaren Euskal Agintaritzaren** txostena.

2022ko urriaren 6an **Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren** irizpena jaso zen.

Txostenak **balorazio positiboa egin zien** Legearen aurreproiektuaren honako alderdi hauei, eta ekarpenak egin zituen lege-proposamenaren puntu batzuetan.

Halaber, **Euskadiko Kooperatiben Goren-kontseiluak** bere irizpenaren txostena 2022ko urriaren 18an aurkeztu zuen.

Amaitzeko, 2022ko urriaren 21ean **Euskadiko Eskola Kontseiluaren** txostena jaso genuen.

Behin informazioa jendaurrean jartzeko izapidearen ondoriozko alegazioak eta ekarpenak jasota, eta lehen zirriborroari buruzko txosten guztiak zehaztasunez aztertuta, **BIGARREN ZIRRIBORROA** idatzi zen, eta **2022ko azaroaren 16an** erantsi zitzaion espedienteari, aurreproiektuaren izapideak egiten jarraitzeko, aurreproiektuaren ekarpenen memoriarekin batera.

Lehenengo zirriborroari egindako aldaketak bigarren zirriborroan sartzeko eta jasotako alegazioak, ekarpenak eta aldaketak ikusteko, begiratu **EUSKADIKO HEZKUNTZAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN EKARPENEN MEMORIA**.

2022ko abenduaren 12an, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena ere jaso zen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen (ETEL) 90.1 artikulua betez, hark ezartzen baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak udalen eskumen propioei soilik eragiten dien lege-aurreproiektu bat edo legegintzako dekretu bat egiteko ekimena hartzen duenean, Tokiko Gobernuen Batzordeak nahitaez txostena eman behar duela.

Ondoren, **2023ko urtarrilaren 9an, EAEKO HEZKUNTZAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKO OSAGARRIA** erantsi zaio espedienteari.

2023ko urtarrilaren 27an Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena jaso zen.

Legearen aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa prestatzeko abiapuntua **2022ko azaroaren 16an** argitaratutako bigarren zirriborroa izan da, eta prestatu da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. artikuluan aurreikusitako txostena **2022ko abenduaren 12an** eman ondoren, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ere (aurrerantzean, KEB) **2022ko urtarrilaren 27an** txostena eman ondoren; horrez gain, beste ekarpen batzuk ere kontuan hartu dira, aurreproiektuaren administrazio-prozesuarekin batera hezkuntza-komunitateko beste kide batzuekin sortu diren interakzioen ondorioz.

Geroago, otsailaren 2an, espedienteari erantsi zitzaion hirugarren zirriborroa eta dagokion **Aholkularitza Batzorde Juridikoarentzako MEMORIA**.

Memoria horretan Legearen aurreproiektuaren 2. eta 3. zirriborroetako artikuluetan egindako aldaketak jasota daude.

Azkenik, **2023ko martxoaren 30ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (EGAB)** txostena jaso genuen.

2023ko martxoaren 31n, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (ABJ) Euskadiko Hezkuntzari buruzko Legearen aurreproiektuari buruz emandako 56/2023 irizpena jaso da.

IZAPIDETZEAREN ESKEMA

Prozedura osoan egindako izapide guztiak errazago ulertzeko eta haien jarraipena egiteko, honako taula hau erantsi da, dokumentu bakoitza (jasotakoak eta emandakoak) dagokion izapidearekin lotzeko.

Izapidea	Data	Dokumentuaren deskribapena
----------	------	----------------------------



Euskadiko Aholkularitza Batzorde Juridikoaren (ABJ) txostena	2023/03/31	ABJren irizpena
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen (EGAB) txostena	2023/03/30	EGABren irizpena
Kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Lege-aurreproiektuari buruzkoa	2023/01/27	KEBren irizpena
Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena	2023/01/13	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Memoria ekonomikoaren bigarren bertsioaren ekarpena	2023/01/09	KEBren memoria ekonomikoa
Euskadiko Tokiko Gobernu Batzordearen txostena	2022/12/12	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Memoria ekonomikoaren lehenengo bertsioaren ekarpena	2022/11/24	KEBren memoria ekonomikoa
Emandako alegazio eta txostenen memoria	2022/11/16	Alegazioen memoria-txostena
Aurreproiektuaren bigarren bertsioa	2022/11/16	Arau-proiektua (testua)
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena (alegazioak ez)	2022/11/09	Sailen ekarpenak/alegazioak
Funtzio Publikoaren txostena	2022/11/09	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Eskola Kontseiluaren txostena	2022/10/27	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Emakunderen txostena	2022/10/24	Generoaren araberako eraginari buruzko txostena



HHABHZren txostena	2022/10/06	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Hizkuntza Normalizazioaren txostena	2022/10/05	Hizkuntza Normalizazioaren txostena
Kooperatiben Goren-kontseiluaren txostena	2022/10/05	TXOSTENA
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren txostena	2022/09/28	Sailen ekarpenak/alegazioak
Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena	2022/09/27	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Sailen txostenak	Osasun Saila 2022/09/23	Sailaren ekarpenak/alegazioak
	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila - 2022/09/22	Sailaren ekarpenak/alegazioak
	Segurtasun Saila - 2022/09/21	Sailaren ekarpenak/alegazioak
	Lurralde Plang. Etxeb. eta Garraio Saila - 2022/09/20	Sailaren ekarpenak/alegazioak
	Lan eta Enplegu Saila - 2022/09/19	Sailaren ekarpenak/alegazioak
Txosten juridikoa	2022/09/15	Bestelako txostena, irizpena edo egiaztagiria
Justifikazio-memoria teknikoa	2022/09/15	Justifikazio-memoria teknikoa
EHAAn argitaratzea jendurreko informazio-fasearen hasiera	2022/09/15	EHAAn argitaratzea jendurreko informazio-tramitea
	2022/09/15	EHAAn argitaratzea jendurreko informazio-tramitea
Jendurreko informazioa iragartzeko agindua	2022/09/02	Jendurreko informazioa Tramitea iragartzea
Aurretiko onespeneren agindua	2022/07/22	Aurretiko onespeneren dekretua/agindua
Memoria eta txosten osagarriak	2022/07/22	Justifikazio-memoria teknikoa
	2022/07/21	Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena
	2022/07/21	Azterlanak eta txostenak
	2022/07/21	Justifikazio-memoria teknikoa
	2022/07/21	Azterlanak eta txostenak



Aurretiazko kontsulta izapideko alegazioak	2022/07/21	Alegazioak, iradokizunak, oharrak
Hasteko agindua	2022/04/08	Hasteko agindua/dekretua
Aurretiazko kontsultaren agindua	2021/09/17	Aurretiazko kontsultaren agindua

EUSKADIKO HEZKUNTZAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZ ABJ-K EMANDAKO IRIZPENAREN ANALISIA

SARRERA

2023ko martxoaren 31n, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (aurrerantzean, ABJ) Euskadiko Hezkuntzari buruzko Legearen aurreproiektuari buruz emandako 56/2023 irizpena jaso zen.

Irizpenaren ondorioa hau da: *“Batzordeak irizpen honen gorputzean jasotako oharrak kontuan hartuta, Gobernu Kontseilura eraman daiteke Euskal Hezkuntzari buruzko Lege-aurreproiektua, hark onets dezan”*.

Hori dela eta, bidezkoa da irizpen hori xehetasunez aztertu eta baloratzea, aurreproiektuaren testuan egindako aldaketen berri emateko, eta azaltzeko zergatik ez den egokitzat jotzen haren proposamenak edo gomendioak onartzea, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa betez.

Hitz batez esanda, dokumentu honek izapidean den testua motibatzen duen justifikazioa azalduko du, eta irizpen horrek planteatzen dituen gai garrantzitsu guztiei buruz hartutako erabakiak azalduko ditu.

Testu artikulatuaren zenbakietan egin diren aldaketak ulergarriago egiteko, kontuan hartu behar da azalpenek ABJren azterketaren oinarri izan den hirugarren zirriborroan erabilitako zenbakiak izan dituztela erreferentzia.

AURREPROIEKTUKO ARTIKULU ETA XEDAPENEN GAINEKO GOGOETEN ANALISIA.

EABJren irizpenean jasotako eragozpenak eta proposamenak aztertzean, haiek azaltzeko ordena berari jarraituko zaio, eta zehaztuko dira Legearen Tituluak, paragrafoa aurkeztutako alegazioarekin, eta dagokion artikulua, horien identifikazioa errazteko eta ekimena sustatu duen sailaren azken jarrera baloratzeko.

Proiektuaren balorazio orokorra

Txostenak aurreproiektuaren hasierako balorazioa egiten du, eta, bertan, Estatuko

araudi-esparrua azaltzen du —265-282. paragrafoak—, baina edukia abalatzten du, eta legegileak “antolamenduaren oinarriko alderdiak arautzeko” duen eskumen autonomikoaren testuinguruan kokatzen du, ekimena positiboki baloratuz (283. paragrafoa):

“Nolanahi ere, azaldutako mugak gorabehera, **oso positiboki baloratu behar da gizarte-aldaketa sakonak jasan dituen ingurune batera egokitzeko asmoz sortutako ekimen hau**, aldi berean egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna duen hezkuntza-sistema bat eraikitzeko funtsezko helburua lortu nahi duena, ekitatean, gizarte-kohesioan eta bikaintasunean oinarritua”.

Era berean, nabarmentzen du **“testu arauemailearen sustatzaileek lege malgu bat, aldi berean Euskal Hezkuntza Sistemari egonkortasuna emango diona, lortzeko adostasun zabaletara iristeko erabili duten gogo bizia”** eta, azkenik, legebiltzarrean izandako prozesua azpimarratzen du, haren ondorioz “Euskal Hezkuntza eraldatzeko oinarrien akordioaren” onespena lortu baitzen, alegia, Euskadiko Hezkuntzaren Lege-aurreproiektuaren testuaren oinarria.

Bere analisi orokorrean, txostenak **zenbait alderdi** nabarmentzen ditu:

Lege berria Euskal Hezkuntza Sistemaren lege bihurtuko da, “ikastetxe publikoek izan behar duten garrantzia eta bete behar duten leku nagusia ukatu gabe, hezkuntzarako eskubidearen berme diren aldetik, legegileak ezin du aintzakotzat hartu gabe utzi ikastetxe pribatu itundu nahiz itundu gabekoen eginkizuna, irakaskuntzan parte hartze aktiboa baitute. Nabarmentzen dira, halaber, hizkuntzen tratamendu berria, plan estrategikoaren ekarpena edo programa-kontratua.

AURREPROIEKTUKO ARTIKULU ETA XEDAPENEN GAINEKO GOGOETEN ANALISIA.

Esan bezala, Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenean jasotako eragozpenak eta proposamenak aztertzean, haien azalpenean erabilitako paragrafo-hurrenkera bera erabiliko da, aztertzen den xedapena edo artikulua zehaztuz, errazago identifikatzeko eta ekimena sustatzen duen sailaren azken jarrera baloratzeko. Nolanahi ere, jasota geratzen da aipatutako zenbaki-hurrenkerak aldaketak izango dituela, baloratzen den irizpenean bertan sortzen diren aldaketen ondorioz.

Artikuluaren azterketa

AJBren gomendioak aintzat hartuta, haren tituluen hurrenkera bera erabiltzen da: (I) xedapen orokorrak; (II) hezkuntza-eskubidea eta bizikidetzeta positiboa ; (III) hezkuntza-sistemaren gobernantza; (IV) hizkuntzak euskal hezkuntzan; (V) berrikuntza, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza; (VI) ikastetxeen autonomia, eta (VII) azken zatia.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

313-317.

I. kapituluaren barruan, aurreproiektuaren 1.3 artikuluari dagokionez, txostenak nabarmentzen du lanbide-heziketa kanpo uztea egokia dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legean araututa baitago.

Txostenak adierazten du irakaskuntzen arteko lotura esplizitua egiten dela oinarrizko mailako zikloen erregulazioan, Lanbide Heziketari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan jaso, eta bigarren xedapen gehigarriari buruz esan daitekeena ukatu gabe, hori sartzea lotua dago aurreproiektuaren edukiarekin, nahiz eta aurreproiektuaren 1.3 artikuluan adierazitakoarekin nolabaiteko kontraesana izan.

Onartu da. *(Lanbide Heziketa puntu honetatik kanpo uzteko iradokizuna onartu da, baita bigarren xedapen gehigarriari dagokionez ere).*

319. Printzipioei eta helburuei dagokienez, txostenak azaltzen du HLOren atariko tituluko I. kapituluaren printzipio eta xedeei buruzko hainbat agindu daudela, baina Espainiako hezkuntza-sistemari buruzkoak. Eta, beraz, ez dio eragozpenik jartzen euskal legegileak euskal azpisistemari buruz egiten duen baieztapenari, alegia, “ezaugarri bereziak dituela, bai sozialak eta ekonomikoak, bai kulturalak edo linguistikoak”.

322. Aurreproiektuaren 8. artikulua Euskal Hezkuntza Sistemaren irakaskuntzen zerrenda ematen du, HLOren 3. artikuluan oinarrizko espezialitateak eta etapak zehaztuz xedatutakoa errespetatu nahian.

Onartu da

321. Aurreproiektuaren 4., 5. eta 6. artikuluei buruz ere ez du eragozpenik, Estatuko oinarrizko legeriak ez baititu jasotzen.

323. 8. artikuluari dagokionez, txostenaren arabera, arauaren edukia adierazpen hutsa



izanik, legeak hurrengo arauen esparrua ezar dezake, eta ez du oinarrizko araudia alde batera uzten irakaskuntzen zerrenda ematen duelarik “indarrean dagoen legediaren arabera” eta proposatzen duelarik erreferentzia uniforme bat egitea legean zehar, lotura horiek egiten direnean, zehatzagoa baita 2. eta 3. artikulua, oinarrizko araudi aplikagarria aipatzen dutela.

Ñabardurekin onartzen da. *(Erreferentzia guztiak honela armonizatu dira: “indarrean dagoen legediaren arabera”. Ulertzen dugu, erreferentzia horrek oinarrizko legeria eta baita gainontzeko legeria ere barne hartzen dituela.)*

324. Txostenaren arabera, arauak egiten duen bereizketa (8. artikulua ari da) “helduen irakaskuntzaren” [8.1.1 e) artikulua] eta “helduen oinarrizko hezkuntzaren” artean [8.1.1 g) artikulua] berraztertu egin behar da. Aurreproiektuak berak ere, 15. artikuluan, helduen hezkuntza bakarrik aipatzen du -beste izen batekin eta HLOn ematen zaion izenarekin guztiz bat ez datorrena-.

Onartu da

325. Aurreproiektuaren 9. artikulua, 1. paragrafoan, curriculumaren mugapen sintetikoago bat hobesten du, HLOren 6.1 artikuluan jasotakoaren aldean. Batzordeak ohartarazi du lege autonomikotik curriculumaren kontzeptua eta hura osatzen duten elementuak bereiztea konstituzioaren kontraketat jo duela Konstituzio Auzitegiaren 51/2019 epaiak (6.c OJ).

Onartu da. *(ABJren txostenak aipatzen duen 51/2019 KASren arabera, Kataluniako 12/2009 Legearen 52. artikulua 1. idatz-zatiak (curriculumeko elementuen zerrenda jasotzen du: helburuak, edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko konpetentziak) inbaditzen du oinarrizko legegileak legez betetzen duen arau-esparrua, HLOren bosgarren xedapen gehigarriak izaera hori ematen baitie HLOren 6. (eta 6. bis) artikuluei, eta, gainera, ikuspuntu materialetik, agindu horrek hezkuntza-sistemaren irakaskuntzak antolatzeke funtsezko tresna baten definizioa eta elementuak biltzen ditu, eta arau orokor batzuk baino ez ditu ezartzen; beraz, hori ere materialki oinarritzat jo behar da. Era berean, adierazten du eduki horiek ez direla beharrezkoak curriculumaren helburuak ulergarri egiteko, horien kontzeptua eta elementuak dagoeneko finkatuta daudelako Estatuko oinarrizko legerian. Baina, batez ere, ohartarazten du Estatuko oinarriaren erreproduzioa osatu gabea dela, hura berriro baitzen 2013an, ebaluatu beharreko ikaskuntza-estandarrak eta -emaitzak sartzeko, horiek, gainera, HKHLOk sartutako erreformaren elementu garrantzitsuak baitira).*

Esan behar da, KAK berak azaltzen duen moduan, Kataluniako 12/2009 Legearen 52. artikulua 1. Idatz-zatiak ez du osorik jasotzen Estatuko oinarria; izan ere, arau hori 2013an berriro zen, ebaluatu beharreko ikaskuntza-estandarrak eta -emaitzak sartzeko, horiek, gainera, HKHLOk sartutako erreformaren elementu garrantzitsuak baitira, eta orain, curriculum

osatzen duten elementuak Kataluniako legean baino askoz xehetasun handiagoz deskribatuta daude.

326. Aitzitik, txostenak ez dio eragozpenik jartzen 4. paragrafoari, eta ez du ikusten hark ukatzen duenik Estatuaren eskumena curriculumaren oinarritzko alderdiak finkatzeko, gutxieneko irakaskuntzak osatzen dituzten helburuei, kompetentziei, edukiei eta ebaluazio-irizpideei dagokienez —nahiz eta, lehenago salbuespen egokia egin bada, komenigarria litzatekeen kasu honetan ere sartzea, Eusko Jaurlaritzaren eskumena Estatuaren oinarritzko eskumenen egikaritzak baldintzatuta baitago—.

Onartu da. (*Testu hau aurkeztu da: “Ikasketa bakoitzaren curriculuma Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez zehaztuko da, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.”*).

332. Hezkuntza-etapei dagokienez (lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoa), Konstituzio Auzitegiaren irizpidearen arabera, ezin dira funtsezko elementuak birformulatu —helburua, egitura eta ebaluazioa—, baina arau osagarriak sar daitezke.

Onartu da

333. 10.3 artikuluari dagokionez, gogoratu behar da 3 urtetik 6 urtera bitarteko doakotasuna ezarrita dagoela.

Ñabardurekin onartzen da. (*10.3 artikulua arau osagarriak ezartzen ditu eta, kasu honetan, nahiz eta egia den legeria organikoak doakotasuna 3 urtetik 6 urtera ezartzen duela, eduki hori erreproduzitzen da zentzu instrumental hutsarekin: autonomia-erkidegoak bere eskumenak erabiliz egiten duen arau-garapena ulergarriago egitea. Gainera, oinarritzko araudiaren erreprodukzioa fidela da, eta ez du haren inolako aldaketa ezkuturik egiten. KAK 51/2019 epaian adierazten duen bezala (6 OJ.): KAKen jurisprudentziaren arabera, efektu hori eragin daiteke modu partzialean jasotzeagatik (urriaren 5eko KAKen kasuan, 154/1989, 6 OJ; 62/1993, 4 OJ; orduan, “erreprodukzio partziala, omisio oso nabarmenekin” detektatuta, gutxitasunagatik kontraesana sumatu zen, eta ez gehiegizkotasunagatik, aurrezki-kutxetako hainbat kargudunen bateraezintasun kausei buruz Estatuak ezarritako oinarritzko arauarekiko; 18/2011, 18. OJ, edo 62/2017, maiatzaren 25ekoa, 7. OJ); edo bestela, Estatuaren erregulazioa ia hitz berak erabiliz baina modu nahasgarrian jasotzeagatik (hala gertatu zen lehen aipatutako 62/2017 KEAren 7. oinarri juridikoan).*

Idazketa berria

10.3. artikulua.

Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, doakotasuna zabaldu ahal izango du, bi urtetik aurrerakoa izan dadin.



334. Aurreproiektuaren 12., 13. eta 14. artikulua aztertzean, Batzordeak erabaki du 12.1 artikulua ez duela errepikatze-arazo bat planteatzen soilik, HLOren 18.1 artikuluekin bat ez datorrelako; izan ere, zikloen antolaketa ez dago ikastetxeen esku, Lehen Hezkuntzako etapak badituelako “bina ikasturteko hiru ziklo, eta arloka antolatzen da; arlo horiek izaera orokorra eta integratzailea izango dute, eta ikasleen kompetentzien garapenera bideratuta egongo dira, eta esparrutan antolatu ahal izango dira”.

Ñabardurekin onartzen da. *(12. artikulua ez ditu arautzen HLOn dagoeneko araututa dauden lehen hezkuntzako zikloak; haren arabera: “Pedagogia- eta antolakuntza-autonomiaren printzipioari jarraiki, ikastetxeek Lehen Hezkuntzako sei ikasturteak ziklotan antolatzea erabaki ahal izango dute beren hezkuntza-proiektuan, araudi aplikagarriak ezartzen duenari jarraiki”. Arau hori HLOren 19.5arekin lotu behar da. Haren arabera, “hezkuntza-administrazioek sustatuko dute ikastetxeetan malgutasun-neurriak ezartzea arloak, irakaskuntzak, espazioak eta denborak antolatzeko orduan, eta alternatiba metodologikoak bultzatzea, ikasteko gaitasuna eta ikasle guztien emaitzak pertsonalizatu eta hobetzeko”.*

Agian, 12. artikulua lehen paragrafoaren testua ez da egokiena, baina ulertzen dugu helburua irakaskuntzaren antolaketa malgutzea dela, ikasleen ikasteko gaitasuna pertsonalizatu eta hobetzeko. Ildo horretatik, oinarrizko legeriaren aipamena sartu da, hitz hauekin: “Pedagogia- eta antolaketa-autonomiaren printzipioaren arabera, ikastetxeek, beren hezkuntza-proiektuan, arloak, irakaskuntzak eta denborak adostu, eta alternatiba metodologikoak sustatu ahal izango dituzte aplikagarria den araudiak ezartzen duenaren arabera”.

335. Errepikatzeari dagokionez, auzitegi gorenaren arabera, ezin da haren egitura ezarri, eta ez dirudi nahikoa denik, helburuak adieraztean, 12.2, 13.2 eta 14.2 artikuluetan agertzen den adierazpena sartzeari, “aplikatu beharreko legerian ezartzen denaren kalterik gabe”.

Ez da onartu. *(Aplikatu beharreko legeriaren aipamenak erakusten du euskal legegileak HLOren I. tituluan (“Irakaskuntzak eta horien antolamendua”) agindutakoak errespetatzeko duen borondatea. Kasu honetan, errepikapenak HLOren zenbait arau erkidegoaren araudira ekarri besterik ez du egiten, helburu bakarra dela testu arauemaileari zentzua edo ulergarritasuna ematea).*

337. Batzordeak adierazi du erregulazioa argia izateko gomendagarria litzatekeela, halaber, aurreproiektuko 16.1 artikulua edukia, hizkuntzen irakaskuntzei buruzkoa, banatzea. Lehen esaldia, hezkuntza-sistemaren etapa arruntetatik kanpo garatzen direla adierazteko. Bigarren esaldiak berriro formulatzea eskatuko luke, ez baita oso zehatza pertsona helduei “ere” zuzenduta daudela esatea. HLOren 59.2 artikulua arabera, ezinbestekoa da hamasei urte beteta izatea ikasketak hasten diren urtean, eta hamalau urtetik gorakoak ere sartu ahal

izango dira, derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasitakoa ez den beste hizkuntza bateko irakaskuntzak egiteko.

Onartu da

338. Curriculumak onartzeko eskumena duen organoari dagokionez, aurreproiektuko 16. artikuluko 2. paragrafoak aurreproiektuko 9.4 artikuluan xedatutakoaren aurka egiten du, Gobernuak zehaztu behar baitu irakaskuntza bakoitzaren curriculumak. Eta komeniko litzateke, halaber, 3. paragrafoan identifikatzea “erregelamenduzko xedapen arauemaile” hori Eusko Jaurlaritzak edo hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak eman behar al duen.

Onartu da

Erredakzio berria

16. artikulua

1.- Araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen helburua da ikasleak gaitzea hizkuntza horietan komunikazioan aritzeko, hezkuntza-sistemaren ohiko etapak alde batera utzita.

Zuzenduta daude bizitzan zehar hizkuntzak ikasi nahi edo behar dituzten pertsonentzat, haien interes pertsonal, profesional edo akademikoaren arloan modu espezializatuan erabiltzeko. Ezinbesteko baldintza izango da ikasketak hasten diren urtean hamasei urte beteak izatea. Hamalau urtetik gorakoak ere sartzeko aukera izango dute, derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasitakoa ez den beste hizkuntza bateko ikaskuntzak egiteko.

2.- Halaber, Eusko Jaurlaritzak, arauzko xedapenen bidez, hizkuntzen irakaskuntza arautuetako maila desberdinen curriculumak zehaztu eta hizkuntza-eskola ofizialek, ikastetxe publiko delegatuek eta ikastetxe pribatu baimenduek bete beharreko baldintzak ezarriko ditu.

3.- Arauzko xedapen baten bidez, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak arautuko ditu hizkuntza-ziurtagiriak lortzeko egin beharreko ebaluazio- eta homologazio-proben ezaugarriak.

339. Txostenean zehazten da aurreproiektuko 17. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoak Kataluniako Hezkuntza Legearen 65. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoen berdinak direla, eta horiek Konstituzioaren kontrakotzat jo zituela K Aren 51/2019 epaiak. Paragrafo horietarako prestatutako erreproduktzio hori Konstituzioaren kontrakotzat jo behar da, ez baitu helburutzat erkidegoaren araudiaren garapena ulergarriagoa egitea.

Onartu da

Erredakzio berria

17. artikulua. Arte-irakaskuntzen erregulazioa

1. Arte-irakaskuntzen helburua da ikasleei kalitateko arte-prestakuntza ematea eta musikaren, dantzaren, arte dramatikoaren, arte plastikoaren eta diseinuaren etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea.

2. Hauek dira arte-irakaskuntzak:

- a) Musikaren eta dantzaren oinarrizko irakaskuntzak.
- b) Arte-irakaskuntza profesionalak. Halakoak dira musikako eta dantzako lanbide-irakaskuntzak, baita arte plastikoetako eta diseinuko erdi- eta goi-mailak ere.
- c) Goi-mailako arte-irakaskuntzak. Halakotzat hartzen dira musikako eta dantzako goi-mailako irakaskuntzak, arte dramatikoko irakaskuntzak, kultura-ondasunen kontserbazio- eta zaharberritze-irakaskuntzak, diseinuko goi-mailako ikasketak eta arte plastikoetako goi-mailako ikasketak, adibidez, zeramikako goi-mailako ikasketak eta beirako goi-mailako ikasketak.

341. Bestalde, azpimarratu du ezin dela gogoeta hori hedatu aurreproiektuko 18. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetara —Kataluniako Legearen 68.1 eta 2. artikulua pixka bat aldatuta erreproduzitu dira, 68.2 artikulua bi paragrafotan banatua—, 68.1 artikulua kasuan, konstituzioaren kontrakotzat jo baitzuen, nahiz eta egiaztatu Estatuko arauaren kopia fidela zela. Konstituzioaren kontrako deklaratu zen, halaber, 68.2 artikulua, Estatuko erregulazioarekin kontraesan materialik ez zegoela ikusi bazen ere.

342. Konstituzio Auzitegiak baliozkotu egin zuen Kataluniako Hezkuntzaren Legearen 68.3 artikulua, aurreproiektuko 18.4 artikulua antzekoa dena, baina honako zehaztasun honekin: “Generalitateak curriculuma ezartzean, Estatuak ezartzen dituen kirol irakaskuntzen modalitateak eta espezialitateak hartu beharko ditu oinarri, eta hark finkatzen dituen eskola-orduen % 55a errespetatu beharko du. Era berean, ikasketa horietan sartzeko proben arautegia HLOren 64. artikuluan jasotzen diren oinarrizko arauak atxiki beharko ditu, eta prestakuntza-eskaintzaren erregulazioa Gobernuak ezartzen dituen ikastetxeen gutxieneko baldintzetara egokitu beharko da, HLOren 64.5 artikulua arabera”.

Biak onartzen dira

Erredakzio berria

18. artikulua.– Kirol-ikasketak arautzea.

1.– Kirol-ikasketen xedea da ikasleak kirol-modalitate edo -espezialitate bati lotutako lanbide-jarduerarako prestatzea, bai eta lan-munduaren eta kirol-munduaren bilakaerara eta herritartasun aktibora egokitzen laguntzea ere.

2.–Kirol-ikasketak antolatzeke, kirol-modalitateak eta, hala badagokio, espezialitateak hartuko dira oinarri, Kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legearen 8.b) artikulua arabera Kirol Kontseilu Gorenak emandako onarpenarekin bat etorriz.

3.– Kirol-ikasketa arautuak erdi-mailako eta goi-mailako ikasketetan egituratzen dira. Erdi-mailako kirol-ikasketak gainditzen dituzten ikasleek kirol-teknikariaren titulua jasoko dute, eta goi-mailako kirol-ikasketak gainditzen dituztenek, berriz, goi-mailako kirol-teknikariaren titulua.

4.– Eusko Jaurlaritzak kirol-ikasketen modalitate eta espezialitateetako curriculumak, prestakuntza-eskaintza eta sarbide-probak ezarriko ditu, baita eraginpeko hezkuntza- eta kirol-sektoreekin lankidetzan aritzeko mekanismoak ere.



343. Azkenik, txostenak ohartarazten du aurreproiektuko 18.4 artikulua eta 9.4 artikulua artean kontraesana dagoela, organo arauemaile desberdinak aipatzen dituztelako.

Onartu da

344. Txostenaren arabera, aurreproiektuko 20. artikuluko ikastetxeen sailkapenak eta 21. artikuluko ikastetxe publikoei buruzko mezuek zehaztasun txiki bat behar dute, interpretazioari buruzko zalantzak saihesteko.

Ñabardurekin onartzen da. *(Beraz, ondoren azaltzen da).*

345. 20. artikulua 2. paragrafoko definizioaren arabera, ikastetxe publikoa da titulartzat administrazio publiko bat duena; 21. artikulua 1. paragrafoak, berriz, ikastetxe publikoaren kontzeptua mugatzen du “hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko ikastetxe-sarearen mende” zuzenean dauden zentroetara —zentzu berean, atariko tituluaren n) letran ageri den definizioa—. Kasu hau ohikoagoa izan arren, egokiagoa dirudi ikastetxeen izaera publikoa titulartasun publikoari lotzea. Nolanahi ere, ikastetxe publikoak definizio bat eta bakarra beharko luke.

Ñabardurekin onartzen da *(2. paragrafoan adierazten den bezala, ikastetxe publikoa administrazio publiko baten titulartasuneko dela ulertzen da. Eta ezaugarri erantsia da Hezkuntza Administrazioaren titulartasuneko ikastetxeen sarearen mende egotea zuzenean. Beraz, 20. artikulua ikastetxe publikoa eta 21. artikulua sare publikoarekiko mendekotasuna adierazten du. Agian, 21. artikulua lehen paragrafoaren idazketa hobetu liteke, honela:*

Idazketa berria

21. artikulua.– Ikastetxe publikoak.

1.– Publikoak dira hezkuntza-administrazioa titular duten ikastetxeen sarearen mendean zuzenean dauden eta oso-osorik funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxeak.

346. Txostenaren arabera, itunpeko ikastetxe pribatuei dagokienez, 22. artikuluko 2. paragrafoa ixten da kuoten kobrantzari buruzko zehaztasun bat emanaz, eta hori ken liteke, ez-sistematikoa eta partziala baita, aurreproiektuko 29. artikulua gai horri buruz ematen duen araudi espezifiko kontuan hartzen bada.

Onartu da



347. Bestalde, txostenak adierazten du 22. artikuluko horretako 3. paragrafoak beste kategoria bat iragartzen duela zentro horien barruan, “gizarte-intereseko zentroak”, eta ez da ezer zehazten, salbu eta erregelamendu bidez zehaztuko direla bete behar dituzten baldintzak — idazketa desegoki samar batekin, berriro eranstean da, “eta lege honetan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta honen arauzko garapenean zehazten direnak ere”—, eta ezartzen diren auditoriak pasa beharko dituztela, eta kontabilitate-gardentasuna bermatzeko arauak bete, baliabide publikoak helburu zehatz baterako erabiltzen direla ziurtatu ahal izateko.

Ñabardurekin onartzen da. *(Puntu hori kendu egin da aurreproiektutik. Gure ustez, ez da aurreproiektuaren asmoa ikastetxe horiei beste berezitasun bat aitortzea, eta kategoria horrek nahasmena sortzen du).*

506. Bateragarritasun hori argiago islatzeko, txostenean iradokitzen da egokia izan litekeela aurreproiektuaren 79. artikuluan zehaztutako bat sartzea. 79. artikulua adierazten duenean hezkuntza-gaitasun eskumena duen sailak eta ikastetxeek beren eskumenak eta eskuduntzak erabiltzen dituztela “hezkuntza-politika publikoak eta haien kudeaketaren emaitzak ebaluatzeko sistemekin” bat etorri, egokia litzateke “oinarrizko araudian eta lege honetan aurreikusitakoak” gehitzea.

Osorik onartu da. (*Beraz, 79.1 artikulua honela geldituko litzateke: “Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak eta ikastetxeek hezkuntza-politika publikoak eta horien kudeaketa-emaitzak ebaluatzeko sistemen arabera gauzatuko dituzte beren eskumenak lege honetan eta*

indarrean dagoen legedian ezarritakoaren esparruan, eta, besteak beste, eremu hauetan proiektatu ahal izango dira:”).

508. Kapituluaren edukiari dagokionez, txostenak adierazten du mezuak behin eta berriz errepikatzen direla, eta hori ez dela lagungarria edukia modu egokian ulertzeko. Esate baterako, 79. artikulua, Euskal Hezkuntza Sistemaren ebaluazioaren araubide orokorra ezartzean, esparruak identifikatzen ditu (1. paragrafoa), baina esparru horiei buruz ari da, modu espezifikoan, 81. artikulua ere.

Osorik onartu da. *(Aurre-legegilearen estiloan, hala ere, 79.1. artikuluan ebaluazio-eremuak identifikatzen dira -zein diren-, eta 81. artikuluan, berriz, haien oinarritzko elementuak ezartzen dira (zer/nor ebaluatzen den, nola).*

509. Hori dela eta, modu sistematikoan egokiagoa litzateke arau honetan biltzea ebaluazio-prozesuen eremuei buruzko erregulazioa, nahiz eta beti modu irekian egin behar den, kontua ez baita zerrenda itxi bat finkatzea, hori, gainera, ez litzatekeelako bateragarria izango oinarritzko erregulazioarekin, azken horrek ebaluazioaren xede gisa espresuki jasotzen baitu hezkuntza-administrazioa bera (HLOren 141. artikulua).

Osorik onartu da. *(Aurreko iruzkinari dagokionez).*

510. Txostenaren arabera, komenigarria litzateke 81. artikuluan zehaztea —horretarako, egokia litzateke 1. paragrafoko mezu arauemaileak bereiztea— ebaluazioaren funtsezko alderdi bat: ikastetxe guztietara —hau da, ikastetxe publikoetara, pribatu itunduetara eta pribatuetara— irits daiteke. Baina, 1. paragrafo horretako bigarren mezutik ondorioztatzen denez, hezkuntza-ebaluazioko prozesuak egiteko betebeharraren indarra ezin da berdina izan.

Osorik onartu da. *(Egiaz, ABJk dioen bezala, legea hobea litzateke orain dituen mezuak bi paragrafotan bereizita: ebaluazioa Euskal Hezkuntza Sistemako esparru eta zentro guztietara iris daitekeela (81.1 artikulua) eta betebeharra bereziki dagokiela Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa osatzen duten ikastetxeei (ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak) (81.2 artikulua). Jakina, horrek lege-proiektuko paragrafoak berriz zenbakitzea ekarriko luke (7 izatera pasatuko lirateke).*

511. Arrazoi horregatik beragatik, txostenak dio 81.5.d) artikuluko “ikastetxe” hitza zehaztu beharko litzatekeela, ikastetxe pribatuen kasuan —itundutakoak nahiz itundu gabeak—, antolaketa- eta kudeaketa-alderdien ebaluazioak ezin duelako izan, inondik ere, ikastetxe publikoen kasuan bezalako edukirik.

Osorik onartu da. *(ABJren iruzkina zuzena da, eta uste dugu, legearen gainerakoarekin bat etorritz, Batzordeak nabarmendutako alderdia argituta geratuko litzatekeela, proposatutako testuari erantsita “haien izaera juridikoaren arabera”, testua honela utziz: “d) Ikastetxeen ebaluazioa, hezkuntza-ikuspegi pedagogikotik eta ikastetxearen funtzionamendu, antolamendu- eta kudeaketa-alderdiei erreparatuz, batez ere giza baliabideen, administrazio-*

prozesuen eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta teknologikoaren kudeaketaren alorrean”).

512. Gogoeta hori 81. artikulua beraren 6. paragrafoan berresten da, non, gainera, ebaluazio-plan espezifikoaren erregulazioa doitu beharko litzatekeen.

Onartu da. *(Aurreko lerroaldean zehazten da ebaluazioaren intentsitatea aldatu egingo dela ikastetxeen izaera juridikoaren arabera. Aurreko premisa ezarrita, uste da ez dela beharrezkoa zehaztapen gehiago egitea legean, zehaztapen horiek ondoko garapenean egingo direlako).*

513. Eremua definitzerakoan [aurreko ataleko b), c) eta d) letrak] eta, eremuaren arabera eta horrek ekarri ahal dituen ondorioen eta efektuen arabera, gaineratu behar da hura onartzeko Gobernuaren edo, hala badagokio, hezkuntza-arloan eskumena duen saileko titularraren erregelamendu bat eman beharko dela. Ebazpen bat ematea —tartean araurik egon gabe— zaila da kasu horretan egokitzea, administrazio-egintza baita beti.

Ñabardurekin onartzen da. *(Ñabardura eransteko testua: Hezkuntza-gaietan eskumena duen departamentuak plan espezifikoak ezarriko ditu irakaskuntza-funtzioa eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko. Erregelamendu bidez ezarriko dira aurreko idatz-zatiko b) letratik d) letrara bitartean jasotako ebaluazioei aplikatu beharreko sistemak, eta ebaluazio-prozesu horien modalitateak eta aldiak zehaztuko dira, bai eta horien ondorioak edo efektuak ere”).*

514. Nolanahi ere, txostenak iradokitzen du 79. artikulua ebaluazioaren ezaugarri orokorrak ezar litzakeela —eduki batzuk aurrerago deskribaturiko xedeetan jori ageri badira ere—; 80. artikulua printzipioak antola litzakeela, eta 82. artikulua helburuak; 81. artikulua, berriz, hezkuntza-ebaluazioko prozesuen eremuak zehazteko aukera emango luke —eduki batzuek ere, 2. eta 3. paragrafoak, xede hori gainditzen badute ere—.

Ñabardurekin onartzen da. *(ABJren iradokizuna sistematikoa baino ez da, lege-proiektuaren edukiaz bestelako antolaketa bat proposatzen duela ukatu gabe, arlo horretarako).*

515-526.

Lehenik eta behin, 83. artikulua ikastetxeen ebaluazioaren eta kontu-ematearen arteko erlazioaz arduratzen da, tituluak adierazten duen bezala. Txostenaren arabera, gomendagarria litzateke horretara mugatzea, eta saihestea aurreproiektuko beste edukien errepikapen partzialak —asmo didaktiko batez eginak, noski—, ez baitute laguntzen etorkizuneko erregulazioa egoki interpretatzen.



Ñabardurekin onartzen da. *(Berriz ere, proposaturiko testua justifikatu beharrez, aurre-legegilearen estiloa aipatuko dugu, arauak ulergarriago egiteko, edukiak errepikatzen baititu, 83. artikuluan arautzen ari den gaiarekin lotura eginez. Zehazki, 1. paragrafoa ken liteke, gainerakoak bere horretan utzita).*

Ildo horretatik, txostenak berak berresten du 1. paragrafoan aipatzen den ebaluazioaren funtsa eta xedea oparo jasota daudela aurreko artikuluetan.

Osorik onartu da. *(Aurreko iruzkinarekin bat etorriz).*

Txostenak gaineratzen du 2. paragrafoa koherentea dela iragarritako xedearekin, ebaluazioaren —aurretiazko jarduketa publikoa— eta kontu-ematearen arteko bereizketa finkatzen baitu. Hala ere, testuaren tarte horretan ebaluazioa egiteko eskumena izan dezaketen organoak aipatzea nahiko asistematikoa da, eta ez da horren beharrik ikusten eta, beraz, ezabatzea iradokitzen da.

Ñabardurekin onartzen da. *(Aurre-legegileak informazioa zabaldu besterik ez du egiten, eta ebaluazioa noren esku geratzen den adierazten du generikoki).*

Txostenak zenbait zehaztapen sartu ditu: 4. paragrafoak kontuak emateko prozesu-mota bat dirudienaz dihardu: ikastetxean aldeztetik egindako ebaluazioaren ondoriozkoa dena —komenigarria litzateke jarraian eransteko den programa-kontratuaren deskribapen partziala ezabatzea—.

Ez da onartu. *(Programa-kontratu bat dagoela ulertzen bada, hark markatu behar du kontuak emateko prozesua, aurre-legegileak ezartzen eta legeak, HLOren 116.4 artikuluan, legitimatzen duen bezala).*

Txostenak dio aurreikuspen hori beste kontu batekin lotuta dagoela. Ikastetxeetan bi motatako ebaluazioak egin daitezke, oso bestelakoak: bata orokorra (81.5.d artikulua) eta bestea espezifikoa, kontu-ematearen ondoriozkoa, dela funts publikoekin sostengatutako ikastetxeak direlako —HLOren 120.3 artikulua eremura garamatza horrek—, dela, horrez gain, programa-kontratu bat hitzartu dutelako (aurreproiektuaren 36. artikulua).

Osorik onartu da.

Txostenaren arabera, hala ere, badirudi 83. artikuluan bi kasu horiek ebaluazio-eredu bakar batean biltzen direla, 79.4 eta 83.4 artikulua ikusita —“kontuak emateko prozesuetan, ikastetxeetako ebaluazio-sistemen ondorioz”—, eta hori gauzatzea zaila izan daiteke, eta nolabaiteko nahasmena sortzen du, haien helburu eta xedeei dagokienez.

Osorik onartu da. *(Testua argitzeko asmoz, kendu egin da “ebaluazio-sistemen ondorioz”).*



5. paragrafoari dagokionez — “Erregelamendu bidez zehaztuko dira programa-kontratuek eta horien eranskinek bete beharreko edukiak eta baldintzak, Lege honetan adierazitako terminoekin bat etorrira” —, lehen ere esan denez, 36. artikulura eraman behar da, programa-kontratua arautzen duen araua baita.

Osorik onartu da. (36. artikulura eraman da).

529. Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektiba Institutuari dagokionez, testuinguru gisa, nahiz eta izendapena —institutua— izan, txostenak ondorioztatzen du institutu hori Hezkuntza Sailaren egituraren beste organo bat dela, eta berezitasun bat duela: egitura horren beharrezko organoa dela, haren existentzia lege-arauak berresten baitu, eta, gainera, haren xedea, jardun-eremua eta funtzioak ezartzen baititu (84. artikulua); funtzioei dagokien edukia 85. artikuluan xehetzen da. 86. artikulua “ebaluazio- eta prospektiba-jardueretako lankidetzatza” azaltzen du, eta 87. artikulua, berriz, “jokabide profesionalaren kodea”.

Osorik onartzen da

Txostenean zenbait ohar jaso dira:

531. Lehenengoa, **86.** artikuluari dagokionez, ezin zaio Hezkuntza Saileko barne-organo bati eman “unibertsitateekin eta enpresa, erakunde eta entitate espezializatuekin lankidetzahitzarmenak” egiteko gaitasuna, ez baitu nortasun juridikorik. Akordio horiek sustatzeko ekimena hari dagokiola, ordea, onar daiteke.

Osorik onartu da. (Horrenbestez, proiektuaren 86.3 aldatu egiten da, 84.2 izatera igaroz, testua honela geratuko litzateke: “2.– Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuak lankidetzahitzarmenak sustatu ditzake unibertsitateekin eta enpresa, erakunde eta entitate espezializatuekin.”).

532. “Bere eskumenak betetzeko beharrezkoa denean, arlo horretako profesionalak eta adituak kontratatuzeko” eskumenari dagokionez, berez dagokion moduan zehaztu beharko da: kontratazio-arloko eskumen-arau espezifikoa bat da, eta, beraz, hura formulatzean, kontratazioaren arau-esparruaren eskakizunei erantzun beharko die, juridikoki segurua den esleipena taxutzeko —nolanahi ere, gai horri buruz gogoeta egitea komeni da, argitzeko ea komeni den kontratazioaren arloko eskudantzia bat izoztea lege-mailako arau batean—.

Osorik onartu da. (Proiektuak proposatutako testuan eraginik gabe).

533. Azkenik, artikulua horri buruz adierazten du lehenengo bi paragrafoen zentzua eta helburua argitzeko ahalegina egin beharko litzatekeela, izan ere, paragrafo horien oraingo testuak ulertzen zailak dira.



Ñabardurekin onartzen da. *(Edukia sinplifikatzen da era honetan: “1.– Ebaluazio-eginkizunak betetzean, Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuak lankidetzara sustatuko du hezkuntzaren arloko eskumena duen sailarekin, toki-administrazioekin, hala badagokio, ikastetxeetako eta hezkuntza-zerbitzuetako gobernu-organismoekin eta irakasleekin eta, era berean, ikasleen familiekin.”).*

534. Bigarrena, 87. artikulua institutuaren estatutuak aipatzen ditu —baina, txostenaren arabera, antolamendu-arau hori ez dator bat hari dagokion organo-izaerarekin—. Ez eta prestatze-prozesutik ondorioztatzen denarekin ere, non adierazten baita egungo ISEI-IVEIren ondorengo izango dela, erakunde hori funtzio eta zeregin berrietara egokituta. Beste kontu bat da organoaren zuzendaritzak jokaera-kode bat onartzeko proposamena egin ahal izatea horretarako eskumena duenari, baina kode horri buruz ez da gehiagorik esaten. Beraz, aurreneurri gisa, esan behar da ahalmen diferentek izan ditzakeela pertsona hartzaileen arabera —ebaluazio-organismoan lan egiten duten funtzionarioak edo administrazio-antolamendutik kanpoko pertsonak—.

Osorik onartu da. *(ABJren iradokizuna jaso daiteke, era honetan idatzita: “Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak jokabide-kode bat onartuko du, organoaren zuzendaritzak proposatuta. Kode horretan zehaztuko dira Institutuaren printzipio eta jardun-arauak, eta ebaluazio- eta prospektio-jardueran esku hartzen duten pertsona, organo eta erakunde guztiak. Jokabide-kodea aplikatuko zaie, halaber, jarduera horretan kontratazio publiko edo azpikontratazioaren modalitateen bidez edo administrazio-hitzarmenen bidez parte hartzen duten adituei eta profesionalei.”).*

535. Kode horri *ad extra* proiektio bat eman nahi izanez gero —hala dirudi—, eta horretarako, nahitaez guztientzat bete beharreko eduki gisa jasotzen bada, Administrazioak pertsona fisiko edo juridikoekin, publiko edo pribatuekin, ebaluazio- eta prospektio-jarduerak aurrera eramateko lotu ditzakeen kontratuetan, legeak ezarri beharko ditu kode horren muinaren edukia eta hori ez betetzeak ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak.

Osorik onartzen da

537. Nolanahi ere, Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektio Institutuaren eraketari buruzko iritzi orokor gisa, txostenean gomendatzen da legezko arauan jasotzea organoak bere eginkizunak bete ahal izateko behar dituen edukiak, kontuan hartuta organo horri nortasun juridiko bereizirik ez ematea erabaki dela.

Ñabardurekin onartzen da. *(ABJren gomendioak, zalantzarik gabe, legea hobetuko luke, baina gure ustez, haren funtzioen deskribapenak argitzen du (85.2 artikulua) Hezkuntzako Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektio Institutuaren jarduketara-esparru orokorra).*



541. IV. kapitulua Euskal Hezkuntza Sistemaren ikuskapenari buruzkoa da. Gure proposamena da 88. artikulua 2. paragrafoa osatzea, HLOren 151. artikulua funtzioen aipamen orokorra eginda —enuntziatuen ildotik—, oraingo testuan ez baitira jasotzen. Nolanahi ere, 3. paragrafoa kendu behar da, ezin baitzaizkio juridikoki esleitu Hezkuntza Sailari “legegintza-ekimenari eta erregelamendu-ahala erabiltzeari buruzko araugintza-eskumenen erabilera eta betearazpen-eginkizuna”, funtzio horiek Gobernuari dagozkiolako (Konstituzioaren 97. artikulua, EAEko Autonomia Estatutuaren 29. artikulua eta Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikulua).

Osorik onartu da. *(Beraz, 88. paragrafoa honela geratzen da: 2.– Hezkuntza Sistemaren ikuskaritzak gatazkak konpontzeko prozesuan gainbegiratze, ebaluazio, aholkularitza eta bitartekaritzako oinarrizko funtzioak beteko ditu. Eginkizunen artean ditu, era berean, hezkuntza-proiektuak garatzean ikastetxeen lankide izatea eta haiei laguntzea, autoebaluazio-prozesuak bultzatzea, kanpo-ebaluazioko prozesuetan parte hartzea eta hezkuntza-erantzuna hobetzera bideratutako hobekuntza-proposamenak egitea, lege honetan eta beroni buruzko erregelamendu-garapenean zehaztutakoak ahaztu gabe.” Bestetik, 88.3 artikuluari gomendatutako zuzenketa egin beharko litzaioke (kendu, edo Eusko Jaurlaritzari erreferentzia egin).*

544. V kapitulua Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuez arduratzen da. 2. paragrafoak jasotzen du zerbitzu horien funtzio nagusia, baina, hala ere, 3. paragrafoko bigarren paragrafoak izaera nagusi berarekin jasotzen duenarekin osatzea proposatzen da —proposamena da arau bat berean kokatzea hezkuntza-laguntzako zerbitzuen funtzio nagusiaren erregulazioa—.

Osorik onartu da. *(Ondorioz, 89.2 artikulua honela geratuko litzateke: 2.– Horretarako, hezkuntzarako laguntza-zerbitzu horien eginkizun nagusia ikaskuntza eta digitalizazio aurreratua indartzea izango da, eta beren gain hartuko dute hezkuntzaren etapa guztietako antolaketan, metodologietan, tresnetan, pertsonengan eta hezkuntza-taldeetan proiektatzen diren kudeaketa-eredu aurreratuei buruzko ezagutza transferitzeko eginkizuna, eta ikastetxe guztien beharretara eta errealitateetara egokituko dira, bai funts publikoen bitartez finantzatuenera, bai finantzaketa pribatu hutsezkoenera. Haien eginkizun nagusia da, halaber, hezkuntza-inklusioa sustatzea eta laguntza ematea, horrela bermatu dadin ezen ikastetxeetako aniztasunari ematen zaion erantzunak ikasle guztientzako kalitateko hezkuntza segurtatuko duela, ikasleen bizitzarako konpetentziak garapen-maila gorenera iristeko, edozein direla ere haien inguruabar pertsonalak.”).*

546. Txostenak dioen moduan 5. paragrafoak “sail eskudunaren erregelamenduzko garapena” aipatzen du. Kontseilariari lege bat garatzeko ahalmena ematen zaienean errespetatu behar diren jarraibideei buruz esandakoaren arabera, eta kasuaren justifikaziorik ezean,

Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoaren laguntza-zerbitzuen eremua eskolatik kanpora hedatzeko, gomendagarria izan liteke Gobernuaren hasierako esku-hartze arauemaile bat.

Osorik onartu da. *(proiektuaren testuan zuzenketa eginda: “4.– Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen oinarritzko egiturak eta funtzionamendua Eusko Jaurlaritzaren erregelamendu bidezko garapenaren bidez arautzen dira.”).*

547. V. kapitulua Hezkuntza Laguntzako Zerbitzuei buruzkoa da. 89. artikuluko horretan xedatutakoa eta 90. artikuluko 2. paragrafoa — “laguntza-zerbitzuen jardun-eremua erregelamendu bidez zehaztuko da” — kontraesankorrak dira eta hori ezabatu edo zuzendu behar dela adierazten da.

Osorik onartu da. *(89.4 artikuluko berak oinarritzko egituren eta funtzionamenduaren erregelamenduzko garapena aipatzen du eta, beraz, 90. artikuluko 2. paragrafoa kentzen da).*

549-551. VI. kapituluak Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutuaren sorrera jasotzen du. Txostenak dio oso zaila dela bateratzea haren izaerari buruz jasotzen diren arau-mezu desberdinak bateratzea. Funtsean, esan behar da ez dela nahikoa “autonomia funtzionala duen organoa” dela aipatzea, hari emateko “bere burua antolatzeko ahalmena, bai eta bere antolaketa- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzeko ahalmena ere, erregelamenduz aurreikusten den moduan”.

Era berean, adierazi du legeak organo bat eratzeke oharrak jaso beharko lituzkeela, organo hori ezin bada egun eratuta dauden kategorietara bideratu. “Autonomia funtzional” hori zehazten duten oharrak adierazi behar ditu. Hala egiten ez badu, erregelamenduak aukera gutxi izango du organo berria Hezkuntza Departamentuaren egituratik eta EAEko Sektore Publikoari buruzko Legean jasotzen diren organoen tipologia orokorretik arautzeko.

Txostenak proposatzen du, Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektiba Institutuaren kasuan bezala, Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutuaren eraketa osatzea, lege haren gutxieneko edukia ezarrita, bere helburuak bete eta eginkizunak modu egokian garatzeko modua izan dezan.

Ñabardurekin onartzen da. *(91.5 paragrafoa kentzea eta 91.3 paragrafoa berriz idatzi da: “Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez zehaztuko ditu Euskararen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak, lege honetan ezarritakoaren arabera, eta bere Antolakuntza eta Jarduera Araudia onartzeko ahalmena aurreikusiko du, erregelamendu bidez xedatuko denaren esparruan”).*



VI. TITULUA. IKASTETXEEN AUTONOMIA

572-575. I. kapituluari buruz txostenak planteatzen duen lehenengo gauza zera da, zein ikastetxeri aplikatzen zaion ez jakinik, ondorioztatzen dela arauak ikastetxe guztiei aplikatu beharrak direla. Hala ere, 96. artikuluko 2., 3. eta 5. puntuetako aurreikuspenek, ondoren arautuko diren tresnak aipatzeaz gain, nonbait, ahaztu egiten dituzte ikastetxeen arteko desberdintasunak.

Osorik onartu da.

577. Aitzitik, tresna horien artean programa-kontratua (1.c paragrafoa) aipatzea ez da gomendagarria, hasiera batean, behinik behin, ikastetxe publiko eta itundu batzuek bakarrik hitzartuko baitute. 97. artikulua 2. paragrafoari dagokionez, txostenak dio zehaztu beharko litzatekeela ikastetxearen urteko plana funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek egin behar dutela (46.2.b eta 50.2.b artikulua), programa-kontratuarekin lerrotua, hala badagokio.

Onartu egiten da, ñabardurekin. (*Egia da ikastetxe batzuek bakarrik sinatuko dutela programa-kontratua, baina ñabardura hori gainditu egiten da, c) apartatuan "hala badagokio" esapidea sartuta*).

579. Txostenaren arabera, egokiagoa izan liteke, ikastetxearen hezkuntza-proiektua lantzen hasi aurretik, 100. artikuluan —ondorengo III. kapitulan— araututako autonomia pedagogikoaren ezaugarriak adieraztea, zeren eta tresna hori ikastetxearen zerbitzurako tresna baita, eta ikastetxe guztientzat komunak izan baitaitezke —berriro ere, programa-kontratuaren aipamen bat dugu 2. paragrafoan, saihestu beharko litzatekeena—. 100. artikulua horrek, halaber, funts publikoekin finantzatutako ikastetxeen autonomia pedagogikoaren berezitasunak jasotzen ditu, 4. eta 5. paragrafoetan.

Ez da onartu. (*1. Lehenengo zatia ("egokiagoa izan liteke, ikastetxearen hezkuntza-proiektua lantzen hasi aurretik, 100. artikuluan —ondorengo III. kapitulan— araututako autonomia pedagogikoaren ezaugarriak adieraztea, zeren eta tresna hori ikastetxearen zerbitzurako tresna baita, eta ikastetxe guztientzat komunak izan baitaitezke"), gure ustez, iritzi bat da, legegilearen esku gera daitekeena. 2. Bigarren zatian, gure ustez, programa-kontratuaren aipamena ez da ulertzen osotasunari eta bereizketarik gabe egindakotzat, aurretik "hala badagokio" adierazpena duelako, 577. puntuko iruzkinean adierazi den bezala*).

581-582. Antolamendu- eta kudeaketa-autonomiari dagokionez (101. eta 102. artikulua), irizpenaren arabera, erregulazioak ikastetxe publikoei eta itunpekoiei buruzkoa izan beharko luke, eta horien araubidea berezi beharko luke itundu gabeko zentro pribatuen araubidetik, horiek izango bailirateke aurreproiektuaren 103. artikulua hartzaileak, eta ez zentro pribatuak.

Osorik onartzen da



(Ados gaude bi gogoetekin; 101. eta 102. artikuluen izenburuetan zehaztu beharko litzateke ikastetxe publikoen eta itunduen antolamendu- eta kudeaketa-autonomiaren eremuei dagokiela).

Txostenaren arabera, testua argiagoa izango litzateke 101.1 artikulua ikastetxe publiko eta itundu horiek prestatu behar duten antolaketa- eta funtzionamendu-erregelamenduan zentratuko balitz, mezuak modu egokian bereizi ahal izateko, publikoez ari ote diren (101.4 eta 5. artikulua) edo itunduez ari ote diren (101.6 artikulua). 101. artikuluko 2. eta 3. paragrafoak aski generikoak dira, eta xedapen orokorren kapituluan sar daitezke.

Osorik onartu da. *(Ados gaude artikulua honetako paragrafo batzuk egokiagoak direla xedapen orokorretan jasotzeko; beste batzuk, berriz, kudeaketa-autonomiari dagokion hurrengo artikuluan sartu dira).*

583. Txostenak dio ikastetxe publikoak eta itunduak bereizteak 102. artikulua ulertzen lagunduko lukeela; ulertzen da, 1etik 7ra arteko paragrafoak ikastetxe publikoei buruzkoak dira, baina txostenak dio 1. paragrafoan bakarrik aipatzen direla espresuki. Txostenaren aburuz murrizketa hori 8. paragrafoa irakurrita berresten da, honako hau adierazten duenean: “nolanahi ere, Lege honek edo berau garatzeko erregelamenduzko araudiak aplikatu beharrekotzat ezartzen dituen alderdien kasuan izan ezik, funts publikoak kudeatzen dituztelako, itundutako ikastetxeen kudeaketa ikastetxe horien titularren eta erakunde horien zuzendaritzan diharduten pertsonen eskumena da”.

Onartu egiten da, baina ñabardurekin. *(Gure ustez, 102. artikulua 1. paragrafotik 7.era bitarteko guztiak ez dagozkie ikastetxe publikoei. 2. paragrafoa ikastetxe publikoei buruzkoa da, baina egia da b) apartatuan bakarrik esaten duela espresuki. 3. paragrafoak argi uzten du ikastetxe publikoei eta itunpekoiei buruz ari dela, “funts publikoekin finantzaturako zentroak” aipatzen dituenean. 4. paragrafoa, berriz, ikastetxe publikoez soilik ari da, “ikastetxe publiko bakoitzaren zuzendaritzaz” ari denean. 5. paragrafoak, ordea, berriz ere “funts publikoekin finantzaturako zentroak” aipatzen ditu, eta hor sartzen dira publikoak eta itundutako pribatuak. Aurreikuspen bera dago 6. apartatuan. 6. -bis- apartatua, berriz, ikastetxe publikoei buruzkoa da soilik. Eta 7. atalak, lehenengo xedapen gehigarria jotzen duen heinean, badirudi Euskal Hezkuntza Sistemaz ari dela, hau da, ikastetxeek, oro har, inolako bereizketarik egin gabe.*

Beraz, 101-102 artikuluen edukiak berrikusi dira, ABJren txosteneko jarraibideei jarraituz, eta haien edukiaren zati batzuk argitzeko, aipatu zentzuan).

585. Artikulu berarekin jarraituz, txostenaren arabera, 3. paragrafoa gaiarekin bat ez datorrela dirudi, aurreproiektuko beste arau batzuetan (66. eta 95. artikulua) arautzen baita, hezkuntza-administrazioek hezkuntza-laguntzako profesionalen zerbitzua bermatu behar dutela (HLOren 72.1 artikulua), eta, modu espezifikoan, finantzatu behar dituztela hezkuntza-

orientazioan, psikopedagogikoan eta profesionalean espezializatutako zerbitzuak edo profesionalak (HLOren 157.1.h artikulua).

Osorik onartu da. (*Lerroalde hori kendu egin da artikulutik*).

586. Halaber, 5. paragrafoak ikastetxe publiko bakoitzaren zuzendaritzaz hitz egin behar duela azpimarratu du, 48.2 artikulua ez baitio inolako funtziorik ematen ikastetxe itundu bateko zuzendariari, ebaluazioaren arloan.

Osorik onartu da. (*Ikastetxe publikoek bakarrik ari dela zehazten da*).

587. Harrigarria da, zentro publikoen autonomia ekonomiko-finantzarioa ezartzean, artikulua honek ezer ez xedatzea ikastetxearen kudeaketa-proiektuari eta urteko kudeaketa-planari buruz. Kudeaketa-proiektua atariko tituluaren i) letran definitzen da; urteko kudeaketa-plana, berriz, ikastetxearen urteko planaren parte da [atariko tituluaren h) letra], eta kudeaketa-autonomiaren tresna da (aurreproiektuaren 97.2 artikulua), baina ez da haren edukia zehazten.

Osorik onartu da. (*Paragrafo bat erantsi da Kudeaketa Proiektuaren definizioarekin*).

597. Txostenak dio ez duela ongi ulertu 6. eta 6. bis paragrafoetan jasotako bi mezuen aldiberekotasuna, bigarrena juridikoki baliozkotu ahal izango delako, bai egiten duen mugapenagatik —zentro publikoak—, bai xedeagatik ere —prezio publikoak—.

Ez da onartu. (*Apartatu bakoitza errealitate desberdin bati dagokiolako*).

598. Azkenik, txostenak dio 102. artikuluan kontrol-araubideari buruzko aipamen bat egitea falta dela, ez baita EEPLaren 65. artikulua baliokide den artikulurik jaso. Aurreproiektuaren 21.3 artikulua da, modu asistematikoa samarrean, ikastetxeen tipologiari buruzko kapitulu batean kokatzen baita, adierazten duena ikastetxeen kudeaketa ekonomikoa ondorengo kontrol kontu-hartzaile ekonomiko-finantzario baten mende egongo dela, eta ikastetxeek aurrekontuen kudeaketan izandako gorabehera ekonomiko guztiei buruzko dokumentazio guztia gorde behar dutela. Dokumentazio hori ikastetxean gordeko da eta dagokion kontu-hartzailetzaren kontroleko organoen eskura jarriko da, eta, hala badagokio, Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren eskura, beharrezko egiaztapenak egin ditzan.

Osorik onartu da. (*21.3 artikulua edukia kudeaketa-autonomiaren apartatuan sartu da: "Ikastetxe publikoak arautzen dituzte, batetik, Lege honetan eta honen erregelamendugarapenean ezartzen diren arauak, eta, bestetik, ikastetxe horiek, antolamendu- eta*

kudeaketa-autonomiaren esparruan aitortzen zaizkien arautze-ahalak baliatuz, ematen dituzten arauak”).

602. Nolanahi ere, legeak zehazten du ikastetxe publikoen kudeaketa-autonomia, eta legea bera da eredia zehaztu behar duena, eta, nahiz eta ez dagoen eragozpenik erregelamenduak egiteko ahala erabiliz legeak emandako erregulazioa osatu dadin, arrazoi teknikoengatik edo legeak berak proposatutako helburuak betetzeko modua optimizatzeko, legeak finkatu behar ditu Gobernuak aurrera eraman dezakeen jardueraren zentzua edo orientazioa baldintzatu edo zedarritu ahal duten irizpideak edo elementuak.

Osorik onartu da.

603. 101. eta 102. artikuluek baliabide publikoekin finantzatutako ikastetxeen antolamendu- eta kudeaketa-autonomia arautzen dute, eta 103. artikulua izenburua, bere xedearekin bat etorriz, “itundu gabeko ikastetxe pribatuen pedagogia-, antolamendu- eta kudeaketa-autonomia” izango litzateke, edo sinpleagoa, “itundu gabeko ikastetxe pribatuen antolamendu- eta kudeaketa-autonomia”, betiere hezkuntza-proiektuaz ari den 100. artikuluko 2. eta 4. paragrafoen edukiak sartzen badira —hori ere onartu behar dutelako eta curriculum-proiektua barne hartzen duelako.

Osorik onartu da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

609. Txostenak adierazten du HLOren 30.1 artikulua erreproduzioa, lege horren azken xedapenetako zazpigarrenaren arabera legeria organikoa dena, ez dela guztiz fidela, batez ere 1. paragrafoa, ikasleak kanpo uzten dituelako.

611. Txostenak dio ez dela beharrezkoa esatea ziklo horien curriculumarekin erregelamendu bidez garatuko dela, eta are gutxiago bi paragrafoetan, 2. eta 5. paragrafoetan, ez baitago zalantzarik hura onestea Eusko Jaurlaritzari dagokiola, gainerako irakaskuntzetako baldintza berekin, HLOren 6.5 artikulutik eta, lanbide-heziketan, EAELHLren azken xedapenetako zortzigarrenetik ondorioztatzen denaren arabera.

612. Era berean, ez da uste ekarpen handirik egiten duenik 2. eta 3. paragrafoetan irizpide pedagogikoak azpimarratzeak, bestela ere, ez baitira berdin-berdin aipatzen hor eta HLOren 30.3 artikuluan eta LHLOren 44.5 artikuluan, bateragarriak izan arren.

614. Azken finean, txostenean adierazten da egokia izango litzatekeela gogoeta egitea bigarren xedapen gehigarria sartzeko aukerari buruz, eta, ontzat joz gero, haren testua doitu beharko litzatekeela.

Osorik onartzen dira (*izan ere, xedapen hau kendu da lege-proiektutik*).

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

615-622

Bosgarren xedapen gehigarriak Lan baldintzei buruzko Aholku Batzordea sortzen du. Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalaren adierazgarria da. Txostenaren arabera, haren sorrera justifikatuta dago, ematen zaion helburu nagusiaren arabera: “aholkularitza, analisisa eta hezkuntzako langileen baldintzak hobetzeko proposamenen inguruko adostasunak biltzea”. ABJren irizpenaren arabera, antolamendu-neurri egokia da, eta, kasua bada, arau horiek aplikatzean sor daitezkeen gatazkak saihestea edo bideratzea erraztuko du.

Txostenak ondorioztatzen duenaren arabera, ordea, Kontseilu horrek ikastetxe itunduetako langileei eragiten dieten lan-arazoak soilik aztertzen ditu, eta ez hezkuntzako langile guztiei eragiten dietenak. Argitu behar da xedapen horren asmoa dela Hezkuntzako Zerbitzu Publikoa ematen duten ikastetxeetako langile guztiei eragiten dieten gaiak aztertzea. Alderdi hori indartzeko, testu berri hau proposatzen da, haren osaerari dagokionez: *“Aholku Batzordearen buru hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko burua izango da, eta sail horren, itunpeko ikastetxeetako ordezkariak handieneko enpresa-erakunde eta Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa ematen duten ikastetxe guztien artean % 10eko presentzia edo handiagoa duten sindikatuen ordezkariak izango dira batzordekideak.”*

Era berean, ABJK diotenari jarraiki, proposatzen da “patronalak” aipatu beharrean Euskal Autonomia Erkidegoko zentro itunduetako enpresaburuen erakunde garrantzitsuenak jartzea.

Osorik onartu da.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

624. Euskadiko Eskola Kontseiluari dagokionez, txostenak berriro dio legeak zehaztu behar duela haren osaera; beraz, kendu egin behar da lehen xedapen iragankorra —aurreproiektuko 58. artikuluan zentzua izango luketen parametroak sartzen ditu—, eta, bistan denez, indargabetu behar da Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legea, xedapen indargabetzaile bakarrean.

Ñabardurekin onartzen da. (*Xedapen honen edukiak legearen 55. artikuluan sartzen dira, eta legez arautuko dela zehazten da. “Eusko Jaurlaritzak Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua eratzea ahalbidetzen duen araudia onartuko du, lege hau indarrean jarri eta gehienez ere urtebeteko epean.”*).



BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

625. Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluari buruz adierazitakoaz gain, txostenak dio bigarren xedapen iragankorrean urtebeteko gehieneko epea jartzen dela Gobernuak hura eratzeko araudia onar dezan, baina ez da zehazten noiztik hasiko den epea eta, horren faltan uste izatekoa da “lege hau indarrean sartzen denetik” izango dela.

Osorik onartu da.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA ETA AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

626-634.

Txostenak dio xedapen hauen mezuak berrikusi egin behar direla.

Ñabardurekin onartzen da

Aholku Batzorde Juridikoak uste du xedapen hauen mezuak berrikusi egin behar direla. Txostenean aipatzen den kontraesana saihesteko, xedapen indargabetzailearen 3. apartatua kendu da. Beraz, ez da indargabetzen EAeko Hezkuntzari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen ondoriozko erregelamendu-garapena, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Legearen proposamen berriaren artikulua urratzen ez baditu. Hori bat dator azken xedapenetako bigarreneko 2. lerroaldean xedatutakoarekin, lege proposamenaren arau-garapena egiteko bi urteko epeari dagokionez.

BESTELAKO GAIAK

2023ko martxoaren 30ean **4/23 irizpena** eman zuen **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeak**, Euskadiko Hezkuntzaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa. Ondoren, ekarpen horiek aztertuko dira.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen irizpenaren azterketa

Azkenik, aditzera ematen da ezen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari (aurrerantzean EGAB) buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren babesean, 2022ko azaroaren 16an EGABri eskaera egin zitzaiola, Hezkuntzari buruzko Euskal Legearen aurreproiektuari buruzko txostena eman zezan (erregistro zk.: 2022RTS02322050).

Eskaera hori dokumentazio gehigarria bidalita osatu zen, 2022ko azaroaren 17an, eta egun horretan eman zen eskaera jaso izanaren agiria.

Maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikulua bigarren apartatuak ezartzen duenez, nahitaezko txostena eskatu eta hogeita hamar egun igaro ondoren, txostena eman ez bada, jarduketei jarraipena eman ahal izango zaie. Hala ere, Kontseiluak aurrerago Eusko Jaurlaritzari igorri ahal izango dio, egoki irizten badio.

Nolanahi ere, 3.2 artikuluan adierazitako 30 eguneko epea luzez gainditu zenez, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ez duenez eskatutako txostena eman, lege-aurreproiektua izapidetzen jarraitu du organo izapidegileak, eta aurreproiektuaren testua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari (ABJ) bidali dio.

Aurrekoa gorabehera, 2023ko martxoaren 31n, EGABk Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Lege Aurreproiektuari buruzko 4/23 Irizpena sortu eta igorri zuen.

Irizpen hori lege ezarritako tramitetik eta epeetatik kanpo eman bada ere, atal honetan haren edukia aztertuko dugu.

Aurrekarien laburpena eta aurreproiektuaren edukia deskribatzen duen atala egin ondoren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere irizpena bi atal nagusitan banatzen du: gogoeta orokorren atal bat eta gogoeta espezifikoen atal bat.

Gogoeta orokorren atalak zenbait gogoeta orokor biltzen ditu; gogoeta espezifikoen atalean, berriz, aurreproiektuaren testu artikulatuaren pasarte jakin batzuei buruzko hainbat gogoeta egiten dira.

Memoria honetan, sistematika berari eutsiko diogu, eta lehenik eta behin, gogoeta orokorrak aztertuko ditugu, bigarren atalean gogoeta espezifikoak aztertzeko.

Gogoeta orokorrak

Irizpenaren gogoeta orokorren atalak, era berean, ondo bereizitako bi azpiatal edo kontzeptu biltzen ditu.

Lehenik eta behin, EGABk hainbat gogoeta egiten ditu izapide hauen xede den aurreproiektuaren garrantziari buruz, izapidetzen den uneari buruz eta, haren ustez, testua izapidetzean eta prestatzean kontuan hartu behar diren alderdiei buruz.

Gogoeta horiek garrantzitsuak, interesgarriak eta kasu batzuetan zuzenak izan arren, EGABren irizpenak ez du, haren iritziz, puntu honi dagokionez, artikulatutako testuan aldaketak egin beharra proposatzen, ez agertzen ere, eta, beraz, organo izapidegileak ekarpen horiek kontuan hartzen dituela adierazita, ez dago horren inguruan gehiago esan beharrik.

Aldiz, zenbait ohar egin daitezke, irizpenaren gogoeta orokorrak biltzen dituen zati honetako bigarren azpiatalean EGABk aipatzen dituen bi gairen inguruan.

Hasiera batean, EGABk adierazi du eskubide konstituzionala dela ikasleek jasotzen duten prestakuntza ez izatea nahitaez erlijioso. Premisa hori kontuan hartuta, finantziario publikoa jasoko duten ikastetxeen laikotasunari buruzko aurretiazko eztabaida falta da. Horri dagokionez, esan behar da euskal hezkuntza-sistemaren laikotasuna sakon eztabaidatu eta aztertu dela, euskal hezkuntza-sistemari buruzko akordioaren oinarriak zehazteko Ponentziaren esparruan.

Txosten juridikoan jadanik azpimarratzen zen aurreproiektuak laikotasun positibo baten ikuspegia eman behar zuela Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipioetan (aurreproiektuaren 2. artikulua).

Era berean, azken zirriborroan haxe zehaztu da: erlijio-irakasgaiari dagokionez, “ezarritako gutxienekoa oinarritzko legediak ezarritako gehienekoa izango da”.

Bigarren elementu gisa, EGABk adierazi du testu artikulatuaren zenbait puntutan diskriminazio-ezaren kasu desberdinak aipatzen dituela, nahiz eta LGTBI+ kolektiboa espresuki aipatzen ez den.

Aurreproiektuaren organo izapidegilea bat dator kolektibo horren egoerari buruz EGABk egiten dituen gogoetekin, baina, arautze-teknikaren ikuspuntutik, bazterkeria-egoera hori jasaten ari diren kolektibo zehatzei buruzko aipamen espezifikorik ez gitea erabaki du.

Denboran iraun eta, bai gaur egun, bai etorkizunean, egoera berean egon daitezkeen talde guztientzat aplikagarria izateko asmoz egiten den Lege baten aurreproiektua denez, esamolde orokorrak erabiltzea erabaki da, esaterako, “jatorria, generoa, egoera sozioekonomikoa eta kulturala, erlijio-sinesmenak” eta bukaerako esamolde bat eranstea “beste edozein egoera”,

adierazteko ezin dela inolako bazterkeriarik egon 21.2bis artikuluan; horrenbestez, LGBTBI+ kolektiboa horren barruan jasotzen dela ulertu behar da, eta berdin antzeko egoeraren bat jasaten duen beste edozein kolektibo.

Gogoeta espezifikoak

Irizpenaren bigarren atalean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak zenbait iradokizun egin zituen aurreproiektuko zenbait artikuluren testua aldatzeko.

- 21. artikulua. Ikastetxeen tipologia.

EGABk proposatu du hezkuntzarako eskubide unibertsalaren bermatzaileak izatea Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa osatzen duten ikastetxe guztiak, eta ez soilik ikastetxe publikoak, 21.2 bis artikulua ezartzen duen bezala.

Baztertu egiten da. Puntu zehatz horri dagokion aurreproiektuaren egungo erredakzioak Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 109. artikuluan du oinarri juridikoa. Artikulu horrek dio hezkuntza-administrazioek guztiontzako hezkuntza-eskubidea bermatuko dutela, behar adina plaza publiko eskainita.

Hau da, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezartzen du hezkuntza-administrazioek guztion hezkuntza-eskubideari erantzuteko adina plaza publiko sortu behar dituztela, eta beraz, administrazioek sortu behar dituzten ikastetxe publiko horiek bihurtzen ditu hezkuntza-eskubidea benetan erabiltzearen berme. 21.2 bis artikulua printzipio hori aurreproiektura eramatea besterik ez da.

- 22. artikulua. Ikastetxe pribatu itunduak.

EGABren iritziz, agindu horren 3. puntuan aipatzen den ikastetxe bat interes sozialekotasun jotzeak dituen ondorio juridikoak zehaztu behar dira.

Lehenago azaldu den bezala, azkenean testu artikulatutik interes sozialeko zentroen aipamena kentzea erabaki da.

- 24. artikulua. Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa.

EGABk uste du arauak, artikulua honetan, hezkuntza-zerbitzu publiko hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta betebeharrak jaso behar dituela, eta, beraz, eskubideak ere bai.

EGABk artikulua honi buruz adierazitakoari dagokionez (azken bertsioan 25. artikulua izango da), esan behar dugu agindu horren 5. apartatuak ezartzen dituela ikastetxe horiek bete

beharreko eskakizunak eta baldintzak, eta ez du beharrezkotzat jotzen zehaztapen gehiago egitea, aginduan ezartzen direnez gain.

- Artikulu berria idazteko proposamena: Lanbide orientazioa hezkuntzan.

EGABk artikulu berri bat gehitzea proposatu du, aurreproiektuko 29. artikulua ondoan, hartan jasotzeko “ikasleen orientazio integrala bideratzeak duen garrantzia, oso adin txikikoak direnetik, familiekin batera eskuratu ditzaten ahal den informazio guztia ikasketei buruz, lanbide-irteerei buruz, etab.”.

Ez da planteamendua onartu. Ez da beharrezkotzat jotzen artikulu berriaren proposamenean garatutako kontzeptuak azpimarratzea; izan ere, aurreproiektuaren 2. artikulutik 7.era bitartean, Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipioen, helburuen eta balioen azalpen zehatzak ematen dira.

Gainera, agindu hori 29. artikulua ondoan sartzea (EGABk proposatzen duen bezala), gure ustez, ez litzateke egokia izango, testuaren sistematikaren eta antolamenduaren ikuspuntutik.

- 39. artikulua. Ikastetxeen administrazio-egiturak eta kudeaketa partekatua.
EGABk egokitzat jotzen du argitzea zer diren ikastetxeen administrazio eta kudeaketa partekatuko egiturak eta ea sistema osorako sortzen diren.

Aurretik azaldu den bezala, agindu hori berriro idatzi da, testu argiagoa lortu nahian.

- 48., 50. eta 101. artikulua.

EGABk proposatu du artikulu horietan erabilitako terminoak artikulatzea, egokitu ahal izateko Euskadiko Kooperatiben Legetik sortzen diren irakaskuntzako kooperatibetako zuzendaritza-organoei.

Proposamena onartu da. Aginduen idazketa egokitu egingo da, ikastetxeen tipologia desberdinetako organoen errealitatea ere jaso dezaten.

- 58. artikulua. Euskadiko Eskola Kontseiluaren osaera.

EGABk arauaren lehen puntuan paragrafo bat gehitzea proposatu du. Ondoren, EGABren iritziz Euskadiko Eskola Kontseiluaren osaera berriak izan behar duenari buruzko zenbait zehaztapen egin ditu.

EGABk egindako ekarpenak jasotzen badira ere, adierazi behar da aurreproiektuko lehen xedapen iragankorrak ezartzen duela lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean Euskadiko Eskola Kontseilua arautuko dela.

Aurreproiektu hau sustatu duen organoak uste du Euskadiko Eskola Kontseiluaren etorkizuneko erregulazio horren testuinguruan jaso beharko direla EGABk nahiz bestelako eragileek egin ditzaketen ekarpenak. Aurreproiektu honi dagokionez, gure ustez jaso den erregulazioa nahikoa da, eta ez da beharrezkoa EGABk proposatutakoa bezalako paragrafo berririk sartzea.

- 92. artikulua. Irakasleen hasierako prestakuntza.

EGABk 92. artikuluko 3. puntuan tarteki bat sartzea proposatu du, aldaketa sozial eta ekonomikoen garrantzia azpimarratzeko, prestakuntzako ikasketen plangintzak prestatzeko garaian kontuan har daitezten.

Ez da onartu. Gure ustez, EGABk sartu nahi duen zatia inplizituki sartuta dago, ikasketen plangintza hori egiteko orduan kontuan hartu beharreko elementuen zerrenda ematen denean, eta ez da beharrezkoa zehaztaperen gehigarri hori egitea.

- Lehenengo xedapen iragankorra.

EGABk proposatu du xedapen iragankor horretan erabilitako "murriztu" hitzaren ordez "egokitu" erabiltzea.

Puntu horretan, 58. artikuluari buruz egindako iruzkinaren inguruan adierazitakoa berresten dugu.

- Xedapen iragankor berri bat sartzea.

Aurreproiektuaren 34. artikuluari dagokionez, EGABk beharrezkotzat jotzen du xedapen iragankor bat sartzea, hartan jasotzeko beharrezkoa dela, modu iragankorrean bada ere, itunpeko ikastetxeei ekonomia, finantza eta enpresa aldetik sortu zaien errealitatea aintzat hartzea (adibidez, zentro horiek une honetan hartu dituzten finantza-konpromisoak eta bestelako betebeharrak), kasu bakoitzaren berezitasuna aztertuz.

Ez da onartu. Aurreproiektuko 34. artikulua horren testua Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 88.1 artikulutik sortu da eta harekin bat dator.

Bestalde, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 88.2 artikulua dioenez, Hezkuntza Administrazioak behar adina baliabide eman behar dizkie ikastetxe itundu horiei, doako irakaskuntzatzat deklaraturik dauden irakaskuntza horien doakotasuna bermatu ahal izan dezaten.



Hori guztia bat dator aurreproiektuaren 34. artikuluaen edukiarekin, zeinak ezartzen baitu ezinezkoa dela ikastetxeek kuotak edo ekarpenak egiteko betebeharra ezartzea, ez eta irakaskuntzei lotutako nahitaezko zerbitzuak ezartzea ere, horrek ukitzen baditu finantzaketa publikoa jasotzen duten zerbitzu, prestazio edo esparru materialak.

Horiek horrela, sartu nahi den xedapen iragankorrari dagokionez, aurreproiektuaren 34. artikuluan ezarritako helburua baloratu eta lortzeko elementu garrantzitsua ez da, beraz, ikastetxe itunduek nolako errealitatea duten ekonomia, finantza eta enpresa aldetik, baizik eta ikastetxe horiek ez ezartzea inongo ordainketarik hezkuntza-administrazioak osorik finantzatzutako prestazioengatik.

Horrenbestez, ez da beharrezkoa proposatutako xedapen iragankorra sartzea, ekonomia, finantza eta enpresa aldetik bizi duten errealitatea edozein izanda ere, ikastetxeek ezinezkoa baitute Hezkuntza Administrazioak finantzatu dituen zerbitzuengatik kobratzeko betebeharra ezartzea.

Memorian aurkeztutako alderdi diferenteak xehetasunez aztertu ondoren, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari igortzen zaio, onets dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 18a.